

# uk

244. zenbakia / 2013ko abenduaren 21a



# beharsarea.net

## Uribe Kostan lana euskaraz



Umea zaintzeko edo ikastolara eroateko norbait behar duzu?

info +: Behars@rea Bizkaia: [www.beharsarea.net](http://www.beharsarea.net)



Behars@rea Erandio: [www.beharsarea.net/Erandio/](http://www.beharsarea.net/Erandio/)

Behars@rea Leioa: [www.beharsarea.net/Leioa/](http://www.beharsarea.net/Leioa/)

Behars@rea Getxo: [www.beharsarea.net/Getxo/](http://www.beharsarea.net/Getxo/)

### UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte  
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO  
e-mail: [uk@dizkaria.biz](mailto:uk@dizkaria.biz) / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337  
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga  
ERREDAKZIOA: Zuberua Iturburu, Julien Nafarrate, Nerea Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga  
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka  
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega  
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Armando Llamasos, K. Olate, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Ixone Vega, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Leipoan Euskara Elkarte  
MARRAZKILARIA: Laurita Siles  
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)  
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00  
ISSN: 1576-6799  
© Boluntzarreta



#### ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK


TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

HEZKUNTZA, HENKUNTZA POLITIKA ETA KULTURAREN SAIA  
HEZKUNTZA, HENKUNTZA POLITIKA, POLITIKA LINGUISTIKA Y CULTURA  
Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura  
Ministerio de Educación, Política Lingüística y Cultura

Bizkaiko Foru Aklundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kulturako Saia  
Departamento de Cultura

## Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Euskarak 365 Egun, Amaren Sua ekitaldia, Erandion.
6. FACEGUK. Sasoi honetan zein jaki ez da falta zure mahai gainean?
7. LEHEN ETA ORAIN. Gorlizeko erietxea.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Felix Goirigolzarri "Arditxu".
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

#### SAKONEAN

26. ALBUMA. *Gabrielen Lekua* ikuskizuna, Sopelan.
28. ARGAZKIA. Algortako etorbidea, 1920.
30. BERBETAN. Andoni Lubaki.
34. FOTOGRAFIA. Borja Casas Izagirre.
40. SAKONEAN. Euskaldunon Gabon-ohiturak.

#### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. *Gure Sor Lekua* filma.
43. MUSIKA. Eñaut Elorrieta Areetan.
44. LIBURUAK. Munduko Poesia Kaiarak.
45. KIROLAK. Andra Mariko krosa.
46. MUNDUKATUAK. Haizea J. Amezaga.
47. JENTILKOKA. Erio.

#### AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Tomatea, barazkiak eta gaztagaz.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Laurita Siles.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algorta batelakoak animatzen Asturiasen, 1970-71
54. AITORMENAK. Peio Ruiz Cabestany.

Azala: Borja Casas Izagirre


[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz)




30 Andoni Lubaki

#### Berbetan

Oraintsu jaso du Chris Hondors saria orain urte bi eskas Sopelan bizi den Urretuko gerra argazki-kazetariak.




11 Felix Goirigolzarri "Arditxu"



54 Peio Ruiz Cabestany

## RENAULT CAPTUR HARRAPATU BIZITZA

[www.renault.es](http://www.renault.es) / 902 333 500



Renault Captur gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,7tik 5,4raino. CO2 isuria (g/km) 96tik 125eraino.

DRIVE THE CHANGE



**BILBO BERRI** JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU · [www.bilboberri.com](http://www.bilboberri.com)

**LEIOA BERRI AUTO** IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL 94 480 42 90. LEIOA · [www.renault.es/concesion/leioaberri](http://www.renault.es/concesion/leioaberri)

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN ETA GUK ZURI ERE OPARI SU TA GAR TALDEAREN 'BIZIRIK GAUDE' DISKO BERRIA



gaztezulo

Tel.: 943 457 250  
[harpidetza@gaztezulo.com](mailto:harpidetza@gaztezulo.com)

BEHIN OPARITU 11 ALDIZ JASO URTE OSOAN GOZATZEKO!

11 ALDIZKARI JASOKO DITU(ZU) ETXEAN. MUSIKA, ZINEA, SEXUA, LITERATURA, INTERNET, ARTE ESZENIKOAK, KIROLA, ARGAZKILARITZA...

HI ETA HIRE 20€ URTEAN MUNDUAK



**Armando Llamosas**

&gt; arkeologoa

# Punta Begoña, bazen garaia!

**Azkenean**, idatz dezakegu Punta Begoña bide onean doala. Badugu berreskuratzeko proiektu bat, ez ostalaritza-proiektua. Ahaz dezagun Barcelo eta har dezagun proiektu berria. Udalak emandako informazioaren arabera, aparteko proiektua da. Ikertzaileak oso ezagunak dira, beren arloetan onenekoak: Madariaga, Azkarate, Antiguada... zuzendaritza itzela! Besteak ere eskarmentu-koak direla dirudi.

Arloak oraindik oso definituak ez diren arren, diziplina anitzeko proiektua dela esan digute. Izan ere, planteatu diren arlo batzuek ez dakigu zein lan eta helburua duten, txostenean azalduta egongo dira, dudarik gabe. Dena aztertu behar da, analisi, diagnosis eta ondorio zuzenak egiteko. Hori horrela da egitasmoan, eta horrela izan behar du ondo egiteko.

Azpitarratzeko beste alde bat partaide-tzarena da. Herriak, Getxok, getxoztarrek, garrantzi handia hartzen dute lanean. Ardatz nagusietako bat da: sozializazioa. Bisitaldiaz gain, beste ekimen asko planteatzen dira. Analisia egiteko ere herritarrak kontuan hartzen bide dira proiektuan, informazioa hartzeko eta nortasuna lantzeko. Ezin da ukatu proiektuaren ardatz bat herritarra dela. Hori berria! Joerak, askotan, despotismo ilustrado bezalakoak izan dira: ondo edo txarto, herriaren alde bai, baina haren iritzia kontuan hartu gabe.

Laburbilduz, onurak ekarriko dizkigu proiektuak.

Hala ere, hutsuneak ere badaude, baita arriskuak ere; batzuk proiektuan, beste batzuk Udalean. Harritzekoak, adibidez, zenbakiak; bi batez ere (dirua ezin dugu baloratu): parte-hartzaileak eta epea. Komunikazio falta izan da, proiektuaren asmoa justu kontrako da-eta. Aipatzen badira hamaika Departamendu eta 60 eta piko ikerlari, azaldu beharrekoa da zertarako, oso zenbaki deigarriak baitira. Ez da ohikoa,



berreskurapen batean hainbeste partaide izatea. Proiektua ezohikoa da, beraz, ondo, oso ondo azaldu behar dituzte zertarakoak, horrela, komentario eta txiste maliziosoak saihestuko ditugu.

Epeari dagokionez, ere berdin. Arkupeak egitura sinplea dirudi (ez dakit den), beraz, 2024an amaituko badituzte, azaldu beharrekoa da, azaldu behar dituzte lanak eta azaldu behar dira epeak; ziur nago berreskuratuta egongo direla askoz lehenago (2016 omen da). Hobeto azaldu behar da.

Hasieran gaude, asko hitz egingo dugu proiektuari buruz, Punta Begoñari buruz.

Denbora ere izango dugu, proiektua ondo ezagutzeko, bitartean, lasaitasunez lan egin behar dugu guztiok. Ondo azaldu behar da proiektua, prentsaurrekoak ondo daude, baina 2 milioi eta 12 urte azaltzeko ez da nahikoa, politikariei asko gustatu arren.

Horretaz gain, benetako galdera: behin ikerketa amaituta, zer erabilpen emango dio Udalak? Horretaz ez da hitz egin. Analiak eta diagnosiak erabilpen batzuk eman litzake, baina erabaki politikoa da. Pena izango litzateke, hainbeste partizipazio eta sozializazio ondoren, Udalak esku pribatu-an utziko balitu galeriak. ○

## gu geu

## Urte osoan eta urte osorako

Urteko egunik laburrena eta gaurik luzeena dituen eguneko ingurumarietan argitaratuko da 2013ko azken UK hau. Neguko solstizioa. Gabonak. Ospakizunak. Urte akabuko oporrak. Zelangura, hala. Horien danen zipiritzinez osatu dugu zenbaki hau. Joan da 2013a. Badator 2014a. Urte oso bat joan da, eta datorrenari urte osorako ongietorria behar bezala egiteko prestatzen gabiltza...

Horretarako, UK-ko azken bi zenbakiotako Komikietan legez, Olentzerok Mari Domingiri eta Mari Domingik Olentzerori, opari diezaiogun UK alkarri!! Etxeko postontzian 2014 urte osoan UK jasotzeko oparia egin dezakezue: urte osorako oparia, 20 UK, 20 euro. Guretzat ere oparirik ederrena!

Eskerrik asko dan-danagatik, irakurle! Eta urte barri on uribe kostar dano!

**UK-ko lan-taldea**



ERANDIO, ABENDUAREN 3AN

**Egunero delako euskararen ordua...** / Abenduaren 3an ospatzen da Euskararen Eguna baina, tamalez, aldarrikatzeko asko dago egun bakarerako. Horregatik, Euskarak 365 egun kanpaina abiatu zuen Topaguneak, eta haregaz bat egin dute Uribe Kostako hainbat elkarteek zein norbanakok. Irudi honetan ikusten da egun horretarako antolatutako ziren ekimenetako bat, Erandiokoak; horren albotik, "Euskara, amaren sua" ekimenagaz bat egin zuten erandioztarrek, udalaxe aurrean, egunero euskaraz bizi gura dutela adieraziz. Gogoan izan: "dabilen harriari goroldiorik ez!" ○ / Argazkia: Asier Mentsaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

# Gabon-sasoian zein jaki ez da inoiz falta zuenean?



**Estefania Aranda**

> ikaslea

Bildotsa da Gabon-sasoian nire etxeko mahaian inoiz falta ez den platera. Amamak erosten du urtero eta afaltzeko eta bazkaltzeko prestatzen dute Gabon-egunetan. Egia esan, asko gustatzen zait, dauden gauza guztietatik nire gogokoena dela esango nuke.



**Patricia Sacristan**

> ikaslea


Otarraixkak plantxan. Nire lehengusinari eta niri asko gustatzen zaizkigulako urtero prestatzen dituzte. Hilaren 24an jaten ditugu eta 25ean soberan daudenak. Inoiz falta ez den jakia da. Hasierakoak dira horiek eta gero haragia eta arraina jaten ditugu.



**Cristina Garcia**

> administratzailea

Gabonetan janari pila daukagu beti, gehiegi esango nuke, baina txibierroak ez dira inoiz falta asko gustatzen zaizkigulako. Otarraixkak ere sasoi honetan gure mahaian egotea ohikoa da beste gauza askorekin batera.



**Amaia Lopez**

> ikaslea

Sasoi honetako janari eta platerren artean, turroia bereziki gustatzen zait. Turroi gogorra, zuria dena. Afaldu ostean postre bezala hartzen dut gauero. Beste plater guztiak jan ondoren beti gordezen dut leku bat sabelean turroiarentzat.



**Oihane Quintana**

> ikaslea

Nire amari asko gustatzen zaio sukaldatzea eta hainbat plater sortzea urte osoan zehar, ez bakarrik Gabonetan. Eguberrian mota askotako pintxoak prestatzen ditu bazkaldu eta afaltzeko. Beraz, sasoi honetan horiek dira inoiz falta ez direnak.



**Arantxa Diaz**

> informatikaria

Ama eta amaginarrebaren etxera noa urtero eta magurioak daude beti. Gabon-garaian baino ez ditugu jaten, nahiz eta gauza asko egon mahaian, gustukoen daukadana da. Dena den, Gabonetan gauza gehiegi prestatzen ditugula uste dut.



## Iraganez doa denbora\* beti / GORLIZEKO ERIETXEA

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

### uribitakora >



Ermua mendia (Gorliz) 2010ko abendua

Testua: **Miren Loizaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

\* Doinua: Olentzero joan zaigu

Olentzero hain hurbil  
ikusi ezker  
gailur elurtuetan  
sentitzen da bero  
magiaren garaia  
badelako edo  
kontsumoak eragin  
digulako ero (bis1)  
magiaren garaia  
badelako edo  
bihurtzen garelako  
gabonen bezero (bis2)

Billano gain hortatik  
ageri da garden  
gure eskualdeko  
kostaldea zer den  
ederraren ederrez  
begi bistan Eden  
bizirik mantentzeko  
ez hartu atseden (bis1)  
ederraren ederrez  
begi bistan Eden  
kontsumo ereduak  
diñosku nor garen (bis2)

Uribe kosta ala  
"Kosta Rika" izan  
kontrolatu jarrera  
opariaren ehizan  
ez erosi hau azken  
Gabona bailitzan  
ta herrian erosi  
jardun herrigintzan (bis1)  
ez erosi hau azken  
Gabona bailitzan  
Olentzero baitago  
gu danon peskizan (bis2)

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)



# adi lagun!

Plaza atalean zure iritzia\* irakurri gura dugu; bidal egiguzu!

[uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)

\*(sinatuta eta gehienez 330 berba)



Info+: [www.bilgunefeminista.org](http://www.bilgunefeminista.org)

### liburuxka > beldurrak gurekin jai!

**Euskal Herriko** Bilgune Feministak eta EMAGINEk elkarlanean eginiko hiru urtetako lanaren fruitua da *Beldurrak gurekin jai! Ekin Autodefentsa Feministari* liburuxka. Urte hauetan guztietan indarkeria sexistaren inguruan diskurtso osatua garatu dute Bilguneok, eta horri aurre egiteko hainbat kanpaina eta baliabide ere sortu dituzte. Indarkeria sexistari aurre egiteko autodefentsa feminista eta jarrera lan-

tzen dira, auto estimua, zaintza eta emozioen inguruko atala osatuz. Lanak jasotzen duen edukiak emakume oro ditu jomuga, eta norberak bakarka zein taldean autodefentsa feminista lantzeko eta egunerokoan integratzeko tresna sortzea eta eskaintzea ditu helburu nagusi. Irabazi asmorik bako proiektua da eta herrietan egingo diren aurkezpenetan eskuratzeko aukera izango da, 5 euroren truke. ○

### buberretarako hautagai > beharsarea gunea

**Internet & Euskadi** elkarteak antolatzen dituen Internet Euskadi Buber Sariak hainbat atal eta arlotako interneteko webgunerik onenak saritzen dituzte, eta aurtengo 11. ekitaldirako Beharsarea web-orria hautagaitzat izendatu dute. Sarean euskararen erabilera sustatzeko dauden proiektu onenen atalerako aukeratu dute Beharsarea: zuk zeuk euskaraz lana bilatzeko edo euskaraz lan egingo duen nor-

bait topatzeko doako web-orria. Zerbitzu honek jasotzen dituen iragarkien bidez, lan-eskaintzak edo eskariak kategoriatan sailkatuta daude. Getxon jaio zen Beharsarearen egitasmoa, Egizuren ekimenez, 2011n ipini zuten martxan. Gaur, Getxo, Erandio, Leioa eta Uribe Kostako Mankomunitatean eskaintzen du zerbitzua; gainera, zabaltze-prozesuan egonik, Bizkaiko beste 44 udalerritara ere hedatu da. ○



Info+: [www.beharsarea.net](http://www.beharsarea.net)



Olerkiek sentimenduak irudikatu-asmo dituzte

### poema-liburua > Alma del puerto (Miren Larrea)

**Alma del puerto (Miren Larrea)** liburua aurkeztu dute Portu Zaharrean, Bariko San Nikolas elizaren jatorriaren inguruko beste lan batez batera. Algortako Portu Zaharreko auzokide ezagun eta emankor Miren Larreak (Santurtzi, 1922) idatzitako lana irailan argitaratu bazen ere, Portu Zaharrekoek aurkezpen hurbilagoa antolatu diote oraingoan. Olerkiak eskaintzen ditu honetan Larreak, eta ia

poema guztiak Algortako Portu Zaharri jarriak dira, bertako jendeari eta inguruei, zirrarez beteta emonak. Poesia oraingoan bere eskaintza, bere argazkiak beste goza ditzazuen. Daborduko, UK-ko irakurleok ezagun duzue eguneroko uneak samurtasunez argazki batean harrapatzeko duen gaitasuna; badakizue, Areetako Nagusien Etxeko argazki-lehiaketan zortzi sari irabazi zituela bederatzi urtean. ○

## saiazgetaria

HOTELA



...harria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa

[www.siazgetaria.com](http://www.siazgetaria.com) / [info@siazgetaria.com](mailto:info@siazgetaria.com) / Tf. (+34) 943 140 143

B A D A T O R

**OLENTZERO**

**Hamaika aukera euskaraz bizitzeko eta Gabonak Getxon gozatzeko**

Olentzero kalejirak, Gabonak ludotekan eta gaztelekuan, Gabonak Kultur Etxeetan, kale animazioa, Getxolandia ...

Informazioa: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

Getxo *bizi erdian*

EUSKARA BIZI

Getxo KULTUR ETXEA

on

BIZARRA SIBARRA

Ikuprak

GauEgun

Horra Horra Algortako Olentzero Batzordea • Itxas Argia dantza taldea • Berantzagi dantza taldea • Zasi Eskola dantza taldea  
Gobela ikastolako Txatxalín gurasoen elkarte • Neguriko Gobela taldea



"Gau batean 15 kilo angula harrapatu genuen Isuskitzan"

## Felix Goirigolzarri 'Arditxu' > Isuskitzako angularia

**"Gabon gabean** ospatzen dugu, guztiok afari ona; bixigu, legatz, bakailu saltsan, bakoitzak berak ahal duna!". Kantak dioen legez, bakoitzak ahal duen modura osatzen du gabonetako menua. Sasoi batean, menu horretan ohikoa zen angulak topatzea; ez zen, gaur egun bezala, luxuzko jakia. Butroe errekan, barbarako, Plentziako Isuskitz auzoan, angulariak ikus zitezkeen. Felix Goirigolzarri Mentxaka zen horietako bat. Urdulizko Mendiondo auzoan jaio zen 1924. urtean: "Ardiak genituen baserrian, eta horregatik deitzen zidaten 'Arditxu'; Idahon ere zortzi urtez egon nintzen artzain". Isabel Larrabeitigaz ezkondu ostean, horren familia-baserrira joan zen; Etxebarri baserrira, gaur egun Isuskitzan zutunik jarraitzen duen baserri bakarrera: "Lehen 13 bat baserri zegoen hemen, baina gaur egun ez dugu inor ezagutzen, jende duzti kotxez pasatzen da". Bere garaian, angula bila urtetzen zen Felix, abendutik otsailera: "Gabarra nuen errekan, eta baia eskuan, gaueko hamabietan urten eta angulak egotekotan Getan bueltatzen ginen". Angulari ugari elkartzen ziren errekan: "Plentziatik gasolinoak igotzen ziren Isuskitzara angula bila". Auzokideak Etxebarrira joaten ziren angulak erostera: "Gau batean 15 kilo harrapatu nituen, eta di-da saldu genuen! Kilo bat angula edozeinek eros zezakeen, sasoi horretan dirurik ez zegoen arren!".

Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

# Puntako galeriak, Begoñakoak

Galeriak **birgaitzeko lanak** abiatuko dituzte **udabarrian**; proiektua **lau fasetan** egingo dute eta **12 urte iraungo** dute lanek; **EHUko aditu** talde batek **parte** hartuko du **udal-teknikariakaz** batera

**Urtetako tira-biren ostean erabaki dute; ez dute egingo ez hotelik, ez antzeko proiekturik: Punta Begoñako galeriak leheneratuko dituzte. Lanak hirurteko lau fasetan banatu dituzte eta EHUko 67 aditu-taldeak gidatuko ditu, Getxoko udal-teknikariakaz elkarlanean. Udabarrian hasi gura dute lanean eta, prozesuan, galeriakaz loturaren bat eduki duten pertsonen lekukotasunak batu gura dituzte.**

**Urtetako** utzikeriaren ostean azkenean ekingo diote lanari eta Punta Begoñako galeriak birgaituko dituzte. Egitasmo handia da, lanek 12 urte iraungo dute-eta. EHUko hainbat diziplinako aditu talde batek parte hartuko du proiektuan udal-teknikariakaz batera. Udabarrian abiatu gura dute eta hirurteko fasetan banatu dituzte lanak. Prozesua ikuspuntu orokorretik eta diziplina anitzetatik egingo dute: “barne hartuko ditu, bai eraikinaren esku hartze zientifikoa, bai herritarrei zuzendutako parte hartze eta hedatze programa, baita eraikinean bertan egin beharreko lan arkitektonikoa ere”.

Lanak hasteagaz batera ikerketa historiko eta soziala ere abiatuko dute ikerlariak, eta dokumentazio hori guztia batzeaz eta sailkatzeaz gainera, informazio immateriala batzeko asmoa ere badaukate. Horretarako, galeriakaz loturaren edo harremanen bat eduki duten pertsonen lekukotasunak bilduko dituzte. Ildo horretan, he-



Gaur egun hondatuta daude Punta Begoñako galeriak

rritarrek parte hartzeko garrantzia nabarmendu du Juan Manuel Madariaga aditu-taldeko koordinatzaileak. Azaldu duenez, lanak hasi eta lau hilabetera, getxoitarrek lanak bisitatu ahalgo dituzte. Madariagaren aditu-taldea osatzen dute

**“Lehen fasea hasi eta lau hilabete ostean, getxoitarrek lanak bisitatu ahalgo dituzte”**

EHUko 67 ikerlarik eta ondarea birgaitzeko beste proiektu handi batzuetan ere parte hartu dute.

Bestalde, Udalak azaldu duenez, hurrengo lanak ere gauzatuko dira: dokumentazio geoteknikoa, azterketa eta diagnostikoa, eragin sozioekonomikoari buruzko ikerketa, herritarren partaidetza

fasea, eta Getxoko entitatea eta kidego sentimendua eragin gura duen ondarea zabaltzeko fasea.

Lehen faseak 2,1 milioi euroko aurrekontua dauka eta, Imanol Landa Getxoko alkateak dioenez, “Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin izango du, Punta Begoña berreskuratzeko konpromisoa jendaurrean adierazi baitute”. Gainera, finantziario lortzeko Madrilerako eta Bruselara joko dute, “proiektuaren entitateak, ezaugarriak eta helburuek estatuaren zein Europar Batasunaren inplikazio osoa justifikatzen dutelakoan gaudelako”. Landaren iritziz, proiektua “ezinbestekoa” da “Getxo, Bizkaia, eta Euskadiko ondare arkitektonikoa eta historikoa berreskuratzeko, eta balioan jartzeko”. ○

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

## Portu Zaharra QR bidez

Algortako garapenaren gaineko lana osatu dute



Mikel Gorrotxategik egin du lana, Eusko Ikaskuntzaren enkarguz

**XVII. mendean** bost etxe zeuzkan Algortak, hain zuzen, Portu Zaharrekoak. Gaur egun Algorta dena, lehen Alango zen, eta Algorta Portu Zaharra besterik ez zen. Gero hasi zen zabaltzen, gaur daukan eremua hartu arte. Hori aipatu digu Mikel Gorrotxategik; izan ere, Algortako garapenari buruzko lana osatu du Eusko Ikaskuntzaren enkarguz.

Lan horretan, besteak beste, Portu Zaharreko etxeen historia aztertu du eta informazio hori jaso dute seinale batzuetan. QR kodeak daukate eta beraz, sakelako telefonoan deskarga daiteke etxei buruzko informazioa, agiriak edota argazki zaharrak.

Baina Gorrotxategiren lana zabalagoa da. Informazioa biltzeko 34 pertsona elkarriketatu ditu eta jakin du XVII. mende-

an bost etxe besterik ez zeuzkala Portu Zaharrak. XVIII. mendean, berriz, 95 etxe ziren; beraz, azkar zabaldu zen auzoa.

Eta beste gauza bitxi bat ezagutu du ikerlariak. Beti pentsatu dugu Portu Zaharra arrantzale-uzoa zela, baina hori ez da guztiz zuzena. Antza, 1815ean 106 marinel zegoen auzoan, baina zama-itsasontzietako langileak ziren, beraz ez zuten arrantzarik egiten. Aitzitik, 4 arrantzale besterik ez zegoen, 13 nekazari eta 6 zurgin. Gorrotxategik “oso bitxi” deritzo beste datu bati: urte hartan 60 pertsona alargundu ziren, eta horietatik 5 besterik ez ziren gizonak; gainontzeko alargunak emakumeak ziren. Horrek esan gura du itsasoan desagertu zirela Portu Zaharreko marinel asko eta asko. ○

Info+: [puertoviejodealgorta.blogspot.com](http://puertoviejodealgorta.blogspot.com)

## LAGUNTZAK HIRI ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA ORDAINITZEKO

Urtarrilaren 24ra arte eska daitezke diru-laguntzak Hiri Ondasun Higiezin, zaborren eta estolderiaren gaineko zergak ordaintzeko. Errenta-maila txikia duten familientzako diru-laguntzak dira eta hurrengo baldintzak betetzen dituztenek eska ditzakete: eskaria egiteko momentuan eta 2013ko urtarrilaren 1a baino lehenago eskaeran ageri den etxean erroldatuta egotea, ohiko etxebizitzaren jabe izatea, baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea, zerga betebeharrak egunean izatea eta bestelako etxebizitzaren %100eko jabegoa ez izatea. Eskaerak aurkeztu behar dira Gizarte Zerbitzuetako bulegoetan edo Herritarren Arretarako Bulegoetan.

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

## ALGORTAN KONTSUMITU ETA OPARIA LORTU

Algortako 29 saltokik kanpaina abiatu dute Gabonetan herrian erostera bultzatzeko. Horrela, 300 euroko lau txeki zozketatuko dituzte. Errege-bezperan amaituko da kanpaina eta Gabon ostean egingo dute zozketa. Txeki horiekaz, establezimendu bakoitzean, gehienez 100 euroko erosketak egin ahal izango dira saltoki bakoitzean. Erosi ahalgo dira elikagaiak, arropa, osagarriak, artilea, irudia eta soinua, oinetakoak, kirol-materiala, loreak, jostailuak, mozorroak edota apaingarriak.

Info+: [www.getxo.net/getxolan](http://www.getxo.net/getxolan)

## 21 PROIEKTU JASO DITU WANTED LEHIAKETAK

Wanted ideia-lehiaketaren azken deialdiak inoiz baino proposamen gehiago jaso ditu, hain zuzen ere, 21 proiektu. Udalak antolatzen du lehiaketa eta, aurreko lau edizioetan 29 ideia aurkeztu ziren guztira. Aurtengo proposamenek ondoko arloak lantzen dituzte: kultura, artea, dokumentalak, ikastetxei zuzendutakoak, euskarazko irakurketa bultzatzekoak, sexu aukeren normalizazioari buruzkoak, e.a.

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)



**Kalitatea eta moda prezio paregabeetan**

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57

**Goru, Jontxu eta Perales** > Algortako Eztabaida guneak bost urte

“Inportantea da jendea mugitzea eta gauzak egitera animatzea, egoera latza da-eta”



Villamonten dago Eztabaida gunea

Joan dira bost urte gazte batzuk elkartu eta Eztabaida gunea zabaldu zutenetik. Euskal Herria kalean hasi ziren, baina laster txiki lotu zitzairen lokala eta, gaur egun, Villamonten daude, denda handiagoan ekimen gehiago egin asmoz. Eztabaida liburu-denda da, eta hori baino gehiago: kontra-informazioarako egitasmoa da, ohiko bideen bitartez ezagut ez daitezkeen jazoerak eta ekimenak ezagutzera emon, eta eskualdeko elkarreentzako topaleku izan gura du. Asanblea da erabakigunea eta partaideek musutruk lan egiten dute denda aurrera ateratzeko.

—Bost urte eta hainbat lokal-aldaketa bizi izan dizue.

—Euskal Herria kalean hasi ginen, horren ostean Ameztin egon ginen eta gero etorri ginen Villamonte ingurura. Espero dugu hau izatea behin betiko kokalekua: lokal handia da eta hobeto moldatzen gara hemen hitzaldiak eta bestelako ekintzak egiteko. Asmoa da elkargune bat izatea elkarreentzat. Bestalde, material kontra-informatiboa daukagu, haren bidez, nolabait, hainbat borroka ezagutarazteko eta aurrera eramateko. Lokala ez dugu guk

bakarrik erabiltzen, beste talde batzuk ere elkartzen dira bertan. Izan ere, asmoa da alternatibak eskaintzea, eta ez bakarrik irakurketari dagokionez. Adibidez, janari ekologikoaren kontsumo-taldea daukagu eta etxeko ogia saltzen dugu, bitartekari barik heltzen dira produktuak ekoizlearengandik bezeroarengana. Asanblea bidez funtzionatzen dugu, eta autogestioa eta banaketarako bide alternatiboak bilatzen ditugu. Egitasmoa aurrera ateratzen du kolektibo batek, eta hura saiatzen da gaur egungo errealtatea aldatzen.

—Egitasmoa bilakatu da, hau da, dinamika gehiago garatzen duzue?

—Bai, elikagai subiranotasunaren kontua geroago lantzen hasi ginen. Denborarekin liburu-salmentarako gune bat baino gehiago bilakatzea lortu dugu eztabaida, dinamika garatu da, erreferentzialtasuna lortu dugu eta jendea hurbilduz doa. Gainera, hasierako zerbitzuak ere badauzkagu: liburu, disko eta elkarten material-salmenta. Bideoteka mantentzen dugu, baina gaur egun, interneten bitartez errazagoa da horrelakoak lortzea.

—Hasieran liburutegia ere egin gura zenuten, lortu duzue?

—Hasierako asmoa zen, kontua da eskualdean zerbitzu hori eskaintzen duela daborduko Sopolako Plaza Beltzak, beraz hori errespetatzen dugu. Egutegia ateratzen dugu, *Preso bat liburu bat* dinamika garatzen dugu, hiru liburu argitaratu ditugu, hitzaldi politikak egin ditugu, e.a.

—Eztabaida ezagutzen ez duen jendearentzat azalduko duzue zer den eta zelan funtzionatzen duen?

—Ohiko liburu-denda batek bezala funtzionatzen du, baina partaideek ez dugu kobratzen. Txandak egiten ditugu denda zabaltzeko: ez gara profesionalak, gurea militantzia da. Saiatzen gara ordutegi komertziala mantentzen, baina batzuetan zaila da. Urteekin, ekimen gehiago gauzatu ditugu, helburuak lortuz joan gara. Pozik gaude, horrelako egitasmoa mantentzea berez delako meritua: izan ere, liburu-salmenta eta borroka bera gainbehera doaz azken aldian. Inportantea da jendea mugitzea eta gauzak egitera animatzea, egoera latza da-eta. Eztabaida, gainera, zabalik dago parte hartu gura duen ororentzat. ○

Info+: [www.eztabaida.org](http://www.eztabaida.org)

## Eguberri on!

Gabonetarako aukerak: antzerkia, jarduerak liburutegian edota Getxolandia



Auzokideak txotxongilo-ikuskizuna izango da abenduaren 26an Andres Isasi musika eskolan

**Entzuten dira,** astoaren oinkadak, hurbil daude Olentzero eta Mari Domingi. Gabonak ospatzera goaz eta aukera mordo dago horretarako Getxon.

Kultur etxeetan, barbarako, egitarau berezia antolatu dute goizetan umeentzat eta sendientzat: irudimena, parte-hartze aktiboa eta sormena lantzeko jarduerak egingo dituzte abenduaren 23, 26 eta 27an, eta urtarrilaren 2an eta 3an.

Bestalde, umeentzako antzerkia izango da Areetako Andres Isasi musika-eskolan abenduaren 26an eta 27an. Lehen egun horretan, *Auzokideak* txotxongilo-ikuskizuna eskainiko du Panta Rehi talde-

ak, euskaraz. Abenduaren 27an, barriz, *Titiricircus* antzeztuko du Tanxarina taldeak, gaztelaniaz. Antzezlan biak hasiko dira 18:00etan eta sarrera bakoitzak 4 euro balio du.

Eta urtero legez, Gabonak ezin ulertu Getxolandia parkea barik. Areetako Geltokia plazan kokatu dute eta zabalik egongo da urtarrilaren 4ra arte (11:00-14:00 eta 17:00-21:00). Abenduaren 24an eta 31n, eta urtarrilaren 5ean, 20:00etan itxiko dute; eta abenduaren 25ean eta urtebarrian egun osoan itxita egongo da. Bost bidaiatako bonoak 3,5 euro balio du. ○

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

## Olentzero

ABENDUAK 22:

- **Neguri-Aiboa:**
  - Kantaldia (udal-egoitza; 11:15)
  - Txokolate-jana (Jolas-toki jatetxea; 17:00)
  - Kalejira (Jolas-tokitik; 18:00)
  - Kantaldia (San Esteban egoitza; 18:15)
  - Olentzerori ongi-etorria (Gernika parkea; 19:00)
  - Kalejira (Egarri tabernaraino; 21:30)

ABENDUAK 23:

- **Romo:**
  - Gutunak jasotzea (eliza; 18:00)
- **Andra Mari:**
  - Jaia (Malakate; 19:30)
- **Areeta:**
  - Antzerkia (Eskoletako plaza; 19:30)
- **Algorta:**
  - Puzgarriak eta jolasak (Zabala eskola; 18:00)
  - Bertsolariak (19:00)
  - Taberna ibiltaria taldea (20:00)

ABENDUAK 24:

- **Romo:**
  - Kalekira (Romoko kaleak; 17:30)
  - Dantza-erakustaldia eta Olentzero erretzea (19:30)
  - Txokolate-jana (19:45)
- **Andra Mari:**
  - Kalejira (kiroldegitik; 17:00)
  - Jaia (Malakate; 19:15)
- **Areeta (Eskoletako plaza):**
  - Erakusketak (11:00)
  - Erromeria (11:00)
  - Ipuinak (11:45)
  - Berantzi dantza-taldea (12:15)
  - Bertsolariak (13:00)
  - Zozketa (14:00)
  - Kalejira (Areetako kaleak; 18:30)
- **Algorta:**
  - Puzgarriak eta jolasak (Zabala eskola; 12:00)
  - Kalejira (Benantzotik; 17:00)
  - Jaia (Villamonte; 18:00)
  - Olentzero erretzea (20:00)

**lagusana**  
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59  
(Tellagorri plaza)  
48991 ALGORTA  
Tf. 94 491 14 12  
[gusanalibreria@gmail.com](mailto:gusanalibreria@gmail.com)



Angel Manrique > Leioako Merkatarien Elkarte

“Abenduko zapatu arrastietan fanfarreek kaleak girotu eta saltokiok zabalduko dugu”

**Funtsezko data dira Gabonak merkatarientzat eta, horregatik, gauza desberdinak antolatu ohi dituzte herriko saltokietan kontsumitzea sustatzeko. Leioa ez da salbuespena eta Merkatarien Elkarte hainbat ekimen garatzen ari da abendu honetan.**

—Erakusleioak beltz ipini dituzue hil hasieran, zer dela-eta?

—Erakutsi gura genuen zer gertatuko litzatekeen Leioan saltokirik ez balego, jendeak kontzientzia har dezan herrian kontsumitzeko. Harrera oso ona izan zuen eta elkartekoak ez diren saltoki askok ere parte hartu zuten. Bestalde, orain deskontuen kanpainagaz gabiltza: kontsumitzailea herriko saltokiak ezagutzera da asmoa. Eta fanfarreen lehiaketa antolatu dugu abenduko zapatu arrastietarako. Eurek kaleak girotuko dituzte eta saltokiok zabalduko dugu, ea jendea herrian lotzen den eta salmenta sustatzen dugun.

—Gainera, urtean bitan egiten duzue mauka-azoka?

—Bai, orain arte urtean bitan egin dugu Merkaleioa azoka Bulebarrean, eta gainera, dendetan *outlet* delako egunak antolatu ditugu. Baina apur bat aldatzen hasiko gara eta datorren urtean horietako bana



Info+: [www.comerciosunidosdeleioa.com](http://www.comerciosunidosdeleioa.com)

egingo dugu, saltoki txikien irudia eta zerbitzuaren kalitatea ez narriatzeko.

—Leioaztarrek zelan erantzuten diete proposamen horiei?

—Jendea nahiko animatuta dago. Berbarako, Gabonetako kanpaina muntatzen genbiltzala, zorientzen gintuzten, esaten ziguten ulertzen zutela eta ondo zeritzotela; baina emaitza aurrerago ikusiko dugu, ohiturak aldatzea zaila da-eta.


—Gabonetakoa urteko kanpainiarik ga-

rrantzitsuenetakoa izango da, ezta?

—Bai. Inbertsio indartsuagoa egin behar da eta produktu gehiago ekarri: ohikoa baino eskaera handiagoa egin behar da, eta erantzuna ona ez bada... Kontuan hartu behar da jende guztiak ezin duela erosi erosteagatik, eta gero itzuli. Horregatik egiten ditugu kanpainak. Ildo horretan, Getxoko merkatariaz lan egin gura dugu kanpainak elkarren osagarri izan daitezten, Astrabudukoakaz egin legez. ○

## Autoa euskaraz konpondu

Autoen arloko **euskarazko hiztegia** osatu du **Leioa Berri Auto**-enpresak



Kepa Diego Monasterio, Leioa Berri Autoko gerentea, hiztegia eskuan

**Zelan dira** euskaraz autoen atalak? Eta autoentzako tailerreko tresnak? Zelan esaten zaie konpontze eta mantentze lanei euskaraz, badakizu? Leioa Berri autoen enpresak euskarazko hiztegi edo gida osatu du lantokian erabiltzeko: *Oinarriko terminologia eta espresioak tailerreko lanpostuetan* gida.

Aipatu gaiez gainera, enpresako atal guztiak biltzen ditu hiztegiak: errotulazioa, ohiko esaldiak eta adierazpenak, zereginak, lanpostuak, orduak, egunak, zerbakiak eta aditzak. Ikusten denez, enpresako zeregin guztiak dauzka, bai barne mailakoak, bai bezeroakaz aritzeko eta elkar ulertzeko beharrezkoak direnak.

Kepa Diego Monasterio lantegiko ge-

renteak azaldu duenez, *“euskararen munduan integratuta gaude eta jendeak tailerrean zer esamolde dauden ezagutzera nahi dugu”*. Hiztegia erabiliko dute, bai barne mailan, bai bezeroakaz.

Gainera, euren webguneetan hasiko dira sartzen: Bai Euskarari ziurtagiria daukaten gunean ipiniko dute hiztegia. Gune horretan ezagut dezake bezeroak zer egiten duten euskararen arloan: *“Topagunearen euskal tonbolaren ekimenean sartuta gaude, baina ez dugu asko zabaldu eta agian jendeak ez daki”*. Hiztegiagaz, esan bezala, *“euskararen erabilera sustatu”* gura dute, eta ez bakarrik bertako lankideen artean: *“Jendeak jakin beza hemen euskara erabil dezaketela”*. ○

## BADATOR OLENTZERO!

Horra, horra! Badator gure Olentzero! Lamiakon eta Txopoetan Txikiak dantzataldeak antolatzen du eta 17:30ean hasiko da kalejira, metro geltokian. Pinuetan Romoko eta Pinuetako jai-batzordeak antolatzen du eta kalejira 17:30ean ipini dute hitzordua, Romoko elizan; plazan amaituko da ordu bi beranduago, dantzakaz eta txokolate-janagaz. Txorierrin eta San Bartolomen apur bat beranduago hasiko dira ekitaldiak, 18:00etan; Bifor jai-batzordeak eta Auzotarrok kultur elkarteak antolatu ohi dute, hurrenez hurren. Eta erdigunean hainbat talde aterako dira kantu kantari. Esatea Olentzerori gutunak bidaltzeko postontzia abenduaren 24ra arte egongo dela, non eta Kultur Leioan.

## GABONAK ATERPE LEIOA GAZTEGUNEAN

Hamaika jardura antolatu dituzte Aterpe Leioa Gaztegunean Gabonotarako. Batetik, tailerrak eta lehiaketak: globoflexia, larrua, oparientzako bilgarriak, sukaldaritza, perkusioa, ginkana txikia, eta just dance eta Fifa'14 txapelketak. Bestetik, hainbat jardura: abenduaren 27an, film laburren emanaldia; urtarrilaren 3an, *Las chicas de oro* antzezlan; 4an turroi-askaria, eta 5ean produktu-bilketa solidarioa. Gainera, urtarrilaren 7ra arte ikus daiteke *Kontsumitu hil arte* izeneko erakusketa.

Info+: [gazte@leioa.net](mailto:gazte@leioa.net) eta [www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com)

## ANTZERKIA ETA DANTZA KULTUR LEIOAN

Gabonetan hainbat obra ikusteko aukera izango da Kultur Leioan: abenduaren 26an, *Charlie* (Fernando Hurtado dantza-taldea); 27an, *Manoviva* (Girovago e Rondella); 28an, *Kapsulak* (Markelilñe-Samfaina de Colors); eta 29an, *Clic!* (Pep Bou konpainia). Sarrerek 5 euro balio dute baina, bonua erosiz gero, obra guztiak ikusiko dituzu 16 euroren truke. Emanaldiak 18:00etan hasiko dira.

Info+: [www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com)

**MR TALLER MECANICO**  
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas  
Mota guzietako konponketak: Azterketak, Gurpiak, Indargetzaileak, Soinua...  
Tf. 94 430 17 81  
Bidezabal Kalea 9  
48993 GETXO

**BIZKAIA**  
*irratia*  
**BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan**  
F.M. 102.6 Mhz  
[www.bizkaairratia.com](http://www.bizkaairratia.com)

**LUBERRI**  
Basolanak SL  
**Lorezaritza**  
Luberrri Basolanak, SL  
Axpe ibaiertza 28A  
beheko solairua B12 lokala  
Erandio (Bizkaia)  
Mugikorra: 629 41 18 38  
Tf. :94 467 17 13  
Faxa: 94 467 42 41  
[luberrri@euskalnet.net](mailto:luberrri@euskalnet.net)  
[www.luberrri.biz](http://www.luberrri.biz)

- Soropila ezartzea  
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.
- Seropila zaintzea eta mantentzea  
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.
- Inausketak  
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

## [erandio]

**Pablo Puelles Monge** > Astrabuduko Pertsona Nagusien elkarteko presidentea

“Batuta gaude, familia gara eta maitasuna emoten diegu nagusiei”

**Astrabuduko Erretiratuen Zentroa kudeatzen hasi da auzoko Pertsona Nagusien elkartea. Orain arte BBK-k egin du lan hori baina, zentroa mantentzeko ezintasuna zela-eta, Udalaren esku laga zuen kudeaketa eta, azken hark, Pertsona Nagusien elkarteari esku. Azaroaren 15ean inauguratu zuten barriro eta aste gitxian bazkide kopurua bikoiztu du.**

—Zentroa barriro zabaldu duzue, zelan hartu dute auzotarrek?

—BBK-k ezin zuen zentroa mantendu, beraz: edo gure esku utzi, edo ixten zuten. Udalagaz akordioa egin zuen BBK-k eta lokalaren kudeaketa laga zion, eta Udalak guri. Eta orain hobeto dabil. Lehen enpresa bat azpi-kontratatzan zuen BBK-k zentroa kudeatzeko, baina Alzagako zentroa ere kudeatu behar zuen; beraz, denbora nahikorik ez zeukan biak behar bezala kudeatzeko. Orain elkarteko kideok egiten dugu lan hori: 11 pertsona gara zuzendaritza-taldean. Gu ere bagara erabiltzaile eta behar ditugun gauzak antolatzen ditugu. Gimnasia, tailerrak, karta-lehiaketak, zinema, dantzaldia, e.a. Ile-apaindegia eta kafetegia dauzkagu, eta urteerak egiten ditugu; berbarako, neguan eguazteneko goaz museoren bat ikustera. Esatea BBK-k, Al-



Puelles Astrabuduko Erretiratuen Zentroan (Etxegorri, 20)

dundiak eta Udalak babesten gaituztela, lokala utziz eta diru-laguntzak emonez.

—Bazkide kopurua asko handitu da, zergatik dela uste duzu?

—Lehen ia 200 bazkide ginen, orain 500 lagunetik gora gara. Zuzendaritza-taldeko kide bakoitzak badauka bere zeregina. Arrakastaren arrazoia izan daiteke guk geuk kudeatzen dugula zentroa, inolako bitartekari barik. Denbora gehiago daukagu gauzak ganoraz egiteko. Lehen, gainera, BBK-ko bazkide izan behar zenuen

zentrorra sartzeko. Orain herrikoa izatea besterik ez dugu eskatzen; beno, eta gixienez 55 urte edukitzea.

—Zer emoten die zentroak erabiltzailei, zer ekartzen die?

—Batuta gaude, familia bat gara eta maitasuna eta konpainia emoten diegu nagusiei. Pertsona batzuk bakarrik daude etxean eta guk, atak zabaldu, eta konpainia emoten diegu egunero. Gainera, lehen ez zeuden zerbitzu batzuk eskaintzen ditugu orain, berbarako: ile-apaindegia. ○

## Gabonetan: gozatu!

Jarduerak umeentzat, Olentzeroren etorrera, antzerkiak, kantaldiak edota bertso-jira



Arratoitxo pinpirina antzeztuko dute Alzagako azoka zaharrea abenduaren 26an

**Gozatzeko aukera** zabala egongo da oporretan Erandion. Batetik, umeentzako jarduerak prestatu dituzte: Erandiogoikoan, abenduaren 21etik 23ra, Euskadi plazan; Alzagan, abenduaren 26tik 30era, kiroldegian; eta Astrabuduan, urtarrilaren 2tik 6ra, kiroldegian.

Gainera, Alzagan eta Astrabuduan hainbat ikuskizun izango da kultur etxetan: Alzagan, *Arratoitxo pinpirina*, *Ahateitxo itsusia*, *Do not disturb*, *El principe feliz* eta *Beldurraren etxea*; Astrabuduan, barriro, Oliver magoa, *Caperucita roja*, *Zapatza gorriak* eta *Zipi y Zape* filma.

Olentzero ere hurbilduko da Erandio-

ra: abenduaren 23an Erandiogoikora, eta 24an Alzagara eta Astrabudura.

Bestalde, Gabonetako kontzertuak izango dira Astrabuduko San Lorenzo elizan: abenduaren 26an, Bilboko Urretxin-dorrek eta Jakoriko koruek abestuko dute, eta 27an, Portugaleteko Santa Maria eta Astrabuduko Abots Alai abesbatzek. Kantaldiak 20:00etan hasiko dira eta sartzea doakoa izango da. Egun horretan egingo du Berbots taldeak ere bertso-jira: Arkaitz Estiballesek eta Alaia Martinek kantatuko dute, Oxabi musika taldekoen laguntzagaz, 20:30etik aurrera. ○

Info+: [www.erandio.net](http://www.erandio.net)

## LUTXANAKO TUNELA ETA SEGURTASUNA

Lutxanako lurrazpiko pasabide barriari buruz hitzarmena sinatuko du Udalak Bizkaiko Aldundiagaz. Ondorioz, Aldundiak kamerak eta argiztapen gehiago ipintzeko 50.000 euro emongo du eta ondorengo mantenua Erandioko Udalaren esku lotuko da. Baina danak ez daude ados erabakiagaz eta EHBildu koalizioak pasabide arriskutsua dela eta egindako gastua salatu ditu: “*Ehunka mila euro xahutu eta, lehen arrisku bat zegoen tokian, orain beste bat jarri dute; gainera, gastu gehiago datoz, sortu duten arriskugunea kontrolpean edukitzea*”. Horrenbestez, gurutzebidean semaforoa ipintzeko eskatu du barriro koalizioak.

## AXPEN ENPRESA-PARKEA EGITEA ONARTU DUTE

Axpe-Udondon Ekonomia Jardueretarako Parkea eraikitzea onartu du Erandioko udalbatzak, lehenago Leioakoak egin bezala (udalerrri bien lurrak hartuko ditu, horietatik %75 Astrabudukoak). Dow Chemical lantegiak utzitako orubean egingo dute eta 114.070 metro koadro hartuko ditu. Proiektuak 21 milioi euroko kostua izango du, eta hainbat jardueretarako 300 enpresarentzako tokia. Oraindino ez dute esan noiz hasiko diren eraikitzen.

## GABONETAKO ERAKUS-LEIHORIK POLITENA?

Hasi da erakusleho-lehiaketa. Merkatarien elkarteak antolatzen du eta, herriko saltokiek, gixienez abenduaren 31ra arte erakutsiko dute Gabonetako apainketa. Erakuslehorik ederrenentzako hiru sari emongo dituzte: 200, 140 eta 80 eurokoak; gainera, apainketa originalena sarituko dute pertsona birentzako asteburuko egonaldi batez. Epaimahaia osatuko dute Merkatarien elkarteak aukeratutako pertsonak eta sariak banatuko dituzte urtarrilaren 9an.

Info+: [www.erandio.net](http://www.erandio.net)



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**  
sustapena@argia.com · 943 37 15 45



## AIXERROTA BHI

· TEKNOLOGIKOA  
· BATXILERGOAK · NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK  
· GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / TF. 94 491 17 86

## AUZOLANA URKO PADURAN

Abenduaren 28an Urko paduraren berreskuratze ekologikoagaz jarraituko dute Sopelako herritarrek. Izan ere, egun horretarako Sopelako Udalak auzolanak deitu ditu padura berreskuratze lehenengo mugarrira jarri asmoz. Horrenbestez, sopeloztarrek Urko ibarreko proiektua ezagutzea eta bertan parte hartzeko aukera izango dute. Hala, 10:00-10:30 bitartean Urko paduraren birsorkuntza ekologikoaren proiektuaren azalpena egingo dute; 10:30ean, barriz, partzela baten landaketa egingo dute, bertako zuhaixka eta zuhaitz espezieakaz. Proiektuaren helburua Gobela errekararen eta Lemotza errekatxoaren inguruko habitata biziberritzea da; haltzadi eta harizti moduko baso babesleak erabiliz. Ur gezako bi urmael egingo dira, mehatxupeko habitata ezartzeko eta inguruko bioaniztasuna bultzatzeko. Ingurumena biziberritzeagaz batera, erabilera publikoa ere sustatu gura dute, igarobide, aisialdi eta naturarekiko harreman-gune gisa. Hala, hilaren 28an, aukera ederra izango duzu, auzolanaren bitartez, Sopelako altxor ekologikoa berreskuratze; animatu eta erdu!

## ORDUTEGI-KONTROLA UDAL-ERAIKINETAN

Daborduko martxan da Sopelako udal-erakinen langileen ordutegi-kontrola, besteak beste: udaletxean, Sopelaren, udaltzaingoen egoitzan, udal euskaltegiaren eraikinean, Kurtzio kultur etxean, liburutegian ezarri dute. Leku horietan guztietan jarritako sistema hatz-markaren xehetasunaren kodean oinarritzen da, hau da, langileek euren atzamarra ipini beharko dute makinatxoan eraikinerantz heltzean, atsedena hartzean eta alde egitean. Udalaren esanetan, sistema horren ezarpena "konpromiso eta erantzukizun" ariketa da; izan ere, ordutegiaren kontrola lanpostuan garrantzitsutzat jotzen dute. Aipatutako sistema martxan jarri da Udaleko negoziazio-mahai orokorrean hala adostu ostean. Beraz, langileek euren ordutegiak betetzen dituztela bermatuko du sistema barriak.

## Ikazkina heltzean da! Gabonetan, ohi legez, Mari Domingik eta Olentzerok opariak dakartzate



Olentzerok eta Mari Domingik Sopelako kaleak hartuko dituzte hilaren 24an

**Gabonak** hemen dira, eta horiekaz batera hamaika ekimen dakartzigute. Gabonetako oporrak hasteko, hilaren 20an, *Mister Olentzero* antzezlanak izango da Kurtzio kultur etxean 17:00etan, sarrera doan da. Hilaren 24an barriz, Sopelako Olentzero-batzordeak egitarau oparoa antolatu du egun horretarako; hala, 17:00etan Olentzero eta Mari Domingiren kalejira Larrabasterratik urtengo da, bertako plazatik, eta Sopelara joango da, Udaletxe plazan amaituko da; bidean, bikotea gurdian abiatuko da, joaldunek lagunduta. Plazan bertan herriko

dantza-taldeko txikienek dantza-eskaintza egingo diete, eta ondoren, haurrek aukera izango dute Mari Domingi eta Olentzerorengana hurbildu eta eskakizunak egiteko. Horrez gainera, Sopelan ohitura den enbor zatiari sua emongo diote; izan ere, usadio bihurtu dute urtero Gabon-gauean enbor-zatiak banatu, eta horiek etxean gordeta izatea hurrengo urtean erretzeko. Bestalde, hilaren 26tik 29ra jolas-parkea ere izango da Urko kiroldegian, goizez zein arrastiz. Urtarriaren 1ean, *Urtebarri* ikuskizuna izango da Kurtzio kultur etxean, 13:00etan. ○

**Asier Onaindia** > Olentzero-batzordeko kidea

“Gogoratu nahi dugu zer-nolako garrantzia daukan herrian kontsumitzeak”



Datorren urtean kanpaina indartsuagoa egiteko asmoa daukate batzordekideek

**Hiru** urte daroate Gabonetako ekimenak antolatzeko batzen Olentzero-batzordeko kideek, horien artean Asier Onaindiak. Aurten, gainera, ohiko ekintzak prestatzeaz gain, herritarrek herrian kontsumitzeak dinamikak ere martxan jarri barri dute.

—Ohiko ekimenak antolatzeaz gainera, herritarrek bertan eros dezaten kanpaina abiatu duzue, zer dela eta?

—Bada, Olentzero-batzordean ikusi dugu jendeak gero eta gutxiago kontsumitzen duela herrian; garai honetan erosketa asko egiten dira, eta azkeneko urteetan erosketa horiek herriko kanpo egiteko joera da nagusi; merkataritza zentro erraldoietan egiten dira erosketa horietako asko. Hori dela-eta, herrian bertan ez da dirurik uzten; horrez gain, Gabonetan herriko kaleetan egoten den giroa ere apurka-apurka galtzen da. Orduan, pentsatu genuen kontsumo arduratsua lortzeko zer edo zer egin behar genuela.

—Zertan datza ekinbidea?

—Idea asko ditugu; aurten, baina, kanpainari hasiera emateko kartelxo batzuk jarriko ditugu Sopelako komertzioetan; kartel horien bitartez herritarrei gogorazi nahi diegu zer-nolako garrantzia daukan herrian bertan kontsumitzeak. Gabonetan gastu handiak egitekotan herrian egiteko beharra azpimarratu nahi dugu. Momentuz, hauxe egingo dugu, asmoa daukagu, baina, datorren urtean ekinbide honetan sakontzeko, eta zer edo zer indartsuagoa egiteko dendariakaz batera elkarlanean.

### «Gabonetan bertoko ohiturak sustatzea da batzordearen helburua»

—Ekimen ugari antolatu dituzue...  
—Orain dela 3 urte hasi ginen batzen herritarrok Gabonetan euskal ohiturak sustatu eta guk geuk jaiak antolatzeko, herriko hainbat eragilek eta norbanakok parte hartzen dugu antolaketan. ○

**Gosariak,  
Pintxoak,  
Giro eta musika onena  
ONGI ETORRI!!**  
Bentaxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

## EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,  
etxera eroango dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78  
Tf. 94 491 27 34

## DIDAK hAMILTON IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Aleman

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urteko aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
Tf. 94 676 30 12  
info@didakhamilton.com

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA  
Tf. 94 676 02 66  
Email: sopela@ikastola.net

## OINUTSIK

KONTSULTA PODOLOGIKOA  
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4  
48600 Sopelana  
Tf. 94 404 74 20  
CITA PREVIA  
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU  
ONGIZATEAREN  
ZUTABE, OINEZ  
EDONORA HEL  
ZAITZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

## HIESAREN AURKAKO EGUNAREN HARIRA, MOZIOA ONARTU DUTE

Aurreko azaroaren 28ko udalbatzan, Hiesaren aurkako Egunaren harira Ezker Anitzak aurkeztutako mozioa onartu du Berangoko Udalak. Mozioak bildutako eskakizunen artean: gobernuari osasun eskubideen bermea exijitzen dio, baita osasungintzan gertatzen ari diren murrizketen salaketa ere egiten du. Izan ere, murrizketa horien ondorioz hiesa duten pertsonen osasuna okertuko ei da. Horrez gainera, Udalak mozioaren bitartez hiesaz kutsatutako pertsonen babesa eta elkartasuna adierazi die.

## URTARRILEAN ERE ESKAINTZEK DARRAITE

Orrialde honetan ikusi ahal izan dugunez, Olentzerok abendurako hamaika eskaintza ekarriko dizkigu; halere, urte hasierak ere beste hainbeste utziko dizkigu. Izan ere, Berangon urte barria primeran hasiko dute. Hala, urtarrilaren 2an goiz osoan irratizera joateko txangoa antolatu dute; egun horretan Kuko, Truko eta Bolenwailer pailazoan emanaldia ere izango da Berango antzokian arrastiko 18:00etan. Urtarrilaren 3an, barriz, txango familiarra izango da umeentzako Gabonetako parkera. Hilaren 4an, Gospel kontzertua izango da, eta The Upper Room taldeak eskainiko du zuzeneko, arrastiko 19:00etan Berango antzokian. Urtarrilaren 5ean, barriz, Errege-kabalgata izango da kultur etxetik frontoiraino, 19:30ean hasita.

## GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak  
Orduña Mendatea 1  
Tf. 94 430 22 13  
GETXO

## Urte akabuko ekitaldiak

### Urtearen joanagaz batera hamaika ekimen antolatu dituzte Gabonak, gogoz ospatzeko



"Olentzero eta subilaren lapurreta" ikusgai abenduaren 22an 18:00etan

**Gabonak** heldu eta horiekaz batera hamaika ekimen egingo dituzte Berangon Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera gogoz ospatzeko. Hala, abenduaren 22an, 12:00etan euskal dantzak izango dira Simon Otxandategi Dantza-taldearen ekimenez Berango antzokian. Egun horretan, animazio-zinea izango da umeentzat: *Olentzero eta subilaren lapurreta* filma ikusgai izango da eta arrastiko 18:00etan. Hurrengo egunean, hilak 23, *Mister Olentzero* umeen begirako antzerkia izango da, eguerdiko 12:00etan, Berango antzokian. Egun

berean, baina arrastiz, 18:00etatik 21:00etara gazte-parkea izango da frontoian: rokodromo, jumping eta bideo-jokoak. Abenduaren 24an, barriz, 18:30ean Olentzeroren kalejira izango da Berangoeta kultur etxetik frontoiraino. Abenduaren 27an, 12:00etan Berangoeta kultur etxean Jose Luis Kortak berbaldea eskainiko du bere ibilbidean euskarak izan duen eraginaren barri emoteko. Eta urteari agur esateko, abenduaren 28an, 18:00etan *Bihotzez* haur-ikuskitza eskainiko du Shambu taldeak antzokian bertan. ○

## Cristina Lanchares > Beldur Barik-eko talde irabazleko kide

### "Estereotipoekin apurtu nahi izan dugu; denok berdinarak gara"



Denak 15 urteko Plentziako institutuko ikasleak dira

**Ainhoa A.**, **Ainhoa T.**, **Ane**, **Bego**, **Cristina**, **Mercedes**, **Olatz**, **Aitor**, **Julen**, **Martin T.** eta **Martin E.** izan dira aurtengo Beldur Barik lehiaketako irabazleak. Taldeko kide den **Cristina Lanchares** egaz izan gara.

—**Zer adierazi gura izan duzue egindako lanagaz?**

—Bada, bideoaren bidez neskek eta mutilek gauza berberak egin ahal dituztela adierazi gura izan dugu. Bideoan azaltzen da, balleta ez dela bakarrik nesken zat, mutilek ere egin dezaketela. Esku-pilotaren kasua ere azaltzen da; izan ere, ez da bakarrik mutilentzat, neskek ere joka baitezakete. Estereotipoekin apurtu nahi izan dugu; berdin dio neska zein mutila izan. Denok gauza berberak egin ditzakegu eta.

—**Estereotipazioaren ondorioak nabaritzen dituzue gazteek?**

—Bai, gainera, lehiaketa aurkeztera etorri zitzaizkigunean iragarki asko erakutsi zitzaizkiguten, agertzen ziren emakume guztiak politak ziren; agertzen ziren gizonez-

koak, ostera, lan gogorretan aritzen ziren. Eta horrek guri eragin zigun, ez zitzaizkigun gustatu horrelako ereduak eta erabaki genuen horren aurka azaldu behar genuela.

—**Zelako esperientzia izan duzue?**

—Proiektu honetan parte hartzearen ondorioz, askoz gehiago baloratzen ditugu genero kontuak, eta berdintasuna lortzen

## «Gauzak aldatzea espero dugu, horrelako lanak egin behar ez izatea»

saiatzen gara; esaterako mutilek parte hartu ohi duten gauzetan parte hartzen saiatzen gara. Espero dugu datozen urteotan horrelakoak egin behar ez izatea egoera berak salatzeko, hau da, gauzak aldatzea espero dugu.

—**Irabazteak poztasun handia ekarri dizue...**

—Bai, gainera, guk ez genuen inola ere espero irabaztea, ezustekoa izan da. 250 euroko diru-saria emon digute Uribe Kostako zerbitzuetan xahutzeko. ○

## OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

## UKnatura

ZITEK PORTUGALSTE  
ESCUOLA SUPERIOR DE NÁUTICA, PORTUGALSTE  
MARIA DIAZ DE HARO, 68  
48960 PORTUGALSTE (BIELKALA)

2013-2014 KURTSOA

- \* BIOERAKUNTZA TALDEAK
- \* ARTISAU YABOIAK ETA KOSMETIKOAK
- \* BIOERAKUNTZAKO PROIEKTUAK
- \* ENERDIA BERRIZLAGARRIAK

www.uknatura.org 092705471 / 646742241



## Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorra
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialk garbitzea
- Lan osogarrria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)  
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com



zaindu  
Esku Terapia Zentrua  
Osteopatia - fisioterapia  
Ane Nafarrate Martin  
Doctor Ianda 4, Sopela  
Telf.: 946026779

uk zure publizitatea hemen!

Tf. 94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz- @UKaldizkaria - Uribe Kostako aldizkaria

**URDULIZKO ZALDI-PROBEN IRABAZLEAK**

Joan barri den abenduaren 5etik 10erako bitarte horretan zaldi-probak eginn ziren Urdulizko probalekuan. Urdulizko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuta, hainbat zale hurbildu ziren urteroko zaldi-probakaz gozatzeraz, baita apostuak egitera ere. Lehiaketan aulestiarrak guztiz gailendu ziren; izan ere, lehenengo hiru postuak aulestiarrak lortu zituzten. Irabazlea Koba izan zen; 700 euroko diru-saria lortu zuen, manta eta garaikurra. Bigarren postua, barriz, Juan Martiartuk lortu zuen, 620 euro eta garaikurra eraman zituen. Hirugarren postua Maider Uriartek lortu zuen eta 550 euroko diru-saria Aulestira eroan zuen.

**MR.OLENTZERO ANTZERKIA URDULIZEN**

Gabonen heldueragaz, ekimen andana antolatzen dituzte Mankomunitateko herrietan, besteak beste, Urdulizen. Hala, abenduaren 27an, Urdulizko kultur etxean arrastiko 18:00etan *Mr.Olentzero* antzezlanaz ikusgai izango da, 4 euroren truke.

**BARRIKAN ERE HAMAIIKA EKIMEN GOZATZEKO**

Barrikan hilaren 23an egingo dute Olentzeroen jaitsiera; arrastiko 16:30ean Barrikako hondartzako aparkalekutik abiatuko dira eta 18:30ean umeek harrera egingo diote herriko frontoian, gaztainak eta txokolata janean. Horrez gain, hilaren 26, 27 eta 28an eta urtarrilean 2, 3 eta 4an umeek begirako tailerrak izango dira 18:00etatik aurrera udal-liburutegian.

aldai

**TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK**

Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

**Mankomunitatea**

**Aurten ere, Ekogunek hainbat ikastaro eskainiko die herritarrei**



Ikastaroetan izena emoteko agenda21@uribekosta.org postara mezua bidal dezakezu

Urtarrilean hasi, eta hurrengo lau hilabeteko ikastaroetan izena emoteko epea zabalik dute Mankomunitateko uribe kostarrek; izan ere, interesatuek hilaren 21era arte izena emoteko aukera izango dute Mankomunitateko web-orrialdean. Hilaren 27an barriz, web-orrialdean onartuen zerrenda argitaratuko dute. Eskainiko dituzten ikastaroen artean, besteak beste, urtarrilaren 11n eta 25ean Fruitukultura ekologikoa ikastaroaren I. eta II. mailak izango dira; hasi-barrientzako sukaldaritza, barriz, urtarrileko 11n, 18an, 25ean eta otsailaren 1ean izango dira; basa heskaien landaketa otsailaren 8an; txanpu eta xaboiak egiteko eta bertoko zuhaitz eta zuhaixken landaketa egiteko ikastaroak otsailaren 14an, 15ean eta 18an izango dira hurrenez hurren. Horrez gain, interesatuek basa-fruituen laborantza lantzeko ikastaroa martxoaren 8an egin ahaliko dute, hori gutxi balitz, Uribe

Kostako Mankomunitateak landareen gaixotasunak identifikatzeko ikastaroa eskainiko du martxoaren 28an, baita ongari ekologikoei buruzko saioak ere, apirilaren 5ean. Ahaztu barik, hazitegiak egiteko eskaintza praktikoa ere izango dela apirilaren 11, 12, 25 eta 26an.

**“Hasiberrientzako sukaldaritza eta ongari ekologikoen ikastaroak eskainiko dira”**

Hala, 2007an inausketa egiteko lehenengo ikastaroa antolatu zutenetik, urtero ikastaro ugari antolatzen dituzte. Edozeinek izena emon dezakeen arren, Mankomunitateko herrietako bizilagunek lehentasuna daukate. Horrenbestez, daborduko 2014 urteko ikastaroak, 22 guztira, erabakita daude; baina momentuz, datorren urteko lehenengo lau hilabeteko ikastaroetan bakarrik izena emon daiteke. o

**Abe. 21 - Urt. 20**

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tf. 944 911 337

**ERAKUSKETAK**

**GETXO**  
▶ **Bosteko**. Abenduaren 29ra arte. Algortako Torrene aretoan.

**ERANDIO**  
▶ **Gabon-postalak**. Urtarrilaren 6ra arte. Astrabuduko kultur etxean.

**MUSIKA**

**GETXO**  
▶ **Hamaiketan**. Abenduak 26, 20:00etan. Algortako The Piper's Irish Puben. Doan.  
▶ **Eñaut Elorrieta**. Abenduak 28, 20:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 12 euro.

**ERANDIO**  
▶ **Gabonetako kontzertuak**. Abenduak 26 eta 27, 20:00etan. Astrabuduko San Lorenzo elizan.  
▶ **Bertso-jira**. Abenduak 27, 20:30ean. Altzagako La Plaza tabernatik.

**BERANGO**  
▶ **Simon Otxandategi abesbatza**. Abenduak 27, 20:00etan. Berango Antzokian. Doan.

**BARRIKA**  
▶ **The Upper Room**. Abenduak 28, 11:30ean. Andra Mari elizan.

**ANTZERKIA**

**BERANGO**  
▶ **Mister Olentzero**. Abenduak 23, 12:00etan. Berango Antzokian. Doan.  
▶ **Patxin eta Potxin**. Abenduak 26, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.  
▶ **Bihotzez**. Abenduak 28, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.



Kultur etxeko korridorean dago erakusketa

**▶ Erakusketa ArgIHizkiak erakusketa Getxora iritsi da**

ArgIHizkiak lehiaketaren erakusketa Algortako Villamonte kultur etxean ikus daiteke urtarrilaren 4ra arte. Argazkiek osatzen dute erakusketa, berauetan oinarritutako euskarazko testuakaz batera, eta lehiaketaren bigarren edizioa izan da aurtengoa. Uribe Kostako 12 argazkilariren irudiak dira: Fede Merino, Elker Azketa, Willy Uribe, Aitor Galbarriartu, Iker Basterretxea, Sara de Diego, Juan Gomez, Natxo Pedrosa, Eduardo Camino, Luis de Isusi, Nagore Ayo eta Peru Isasi getxoztarrarenak. Erakusketa ikus daiteke: asteleheneetik barikura, 08:30etik 14:30era eta 16:00etatik 21:30era; eta zapatuetan 09:00etatik 13:00etara. Gozatu gure artisten irudi ederrak!

• Non: Villamonte kultur etxean • Noiz: Urtarrilaren 4ra arte

**LEIOA**  
▶ **Charlie (dantza)**. Abenduak 26, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.  
▶ **Magnoviva (txotxongiloak)**. Abenduak 27, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.

▶ **Kapsulak**. Abenduak 28, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.  
▶ **Clinc!** Abenduak 29, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.

**GETXO**  
▶ **Auzokideak**. Abenduak 26, 18:00etan. Areetako Andres Isasi musika eskolan. 4 euro.

▶ **Taitantos**. Urtarrilak 11, 20:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 12/15 euro.

**URDULIZ**  
▶ **Mister Olentzero**. Abenduak 27, 18:00etan. Kultur etxean. 4 euro.

**ZINEMA**

**BARRIKA**  
▶ **Gru, mi villano favorito**. Abenduak 27, 18:00etan. Ander Deuna aretoan.

▶ **Gru II, mi villano favorito**. Urtarrilak 3, 18:00etan. Ander Deuna aretoan.

**GETXO**  
▶ **El festin de Babette**. Abenduak 27, 21:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 2,90 euro.  
▶ **Glup**. Abenduak 29, 17:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 2,10 euro.

**URDULIZ**  
▶ **Frozen, el reino del hielo**. Abenduak 28, 18:00etan. Kultur etxean. 3,50 euro.  
▶ **La bicicleta verde**. Abenduak 28, 20:15ean. Kultur etxean. 4,50 euro.

**ERANDIO**  
▶ **Prisioneros**. Urtarrilak 5, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

**BESTEAK**

**ERANDIO**  
▶ **Gabonetako tailerrak umeentzat**. Astrabuduko eta Altzagako liburutegietan.

**SOPELA**  
▶ **Gabonetako jolas-parkea**. Abenduaren 26tik 29ra. Urko kiroldegian. Doan.

▶ **II. Pala motzeko kiniela**. Abenduak 29, 11:00etan. Udal-pilotalekuan.

▶ **Urtebarri jaia**. Urtarrilak 1, 13:00etan. Kurtzio kultur etxean.


**GORLIZ**  
▶ **Umeentzako Gabonetako parkea**. Abenduak 28, 11:30etatik 14:30era eta 17:00etatik 19:00etara. Pilotalekuan.  
▶ **Urte akabuko jaialdia**. Abenduak 30, 11:00etatik 13:00etara. Gorlizko kultur etxean.



**ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!**

BASAGOITI ETORBIDEA 51 ALGORTA


[albuma]



# Aresti; bazen, bada!

*Gabrielen Lekua* sentikaria. Euskararen Eguna. Kurtzio kultur etxea (Sopela). Nor da Gabriel Aresti? Zer idatzi zuen? Zer helarazi gura izan zigun? Zer jaso dugu? Biziko balitz, zer idatziko zukeen? Zelan? Zer pentsatuko, kritikatu? Hausnarketaren emaitza poesia, bertso, antzerki eta musika moldeetan eskaini zuten Oier Guillan, Amets Arzallus, Ainhoa Alberdi, Iraia Elias, Rafa Rueda, Iban Urizar eta Naia Membrillerak. Info+: [gabrielaresti.eu](http://gabrielaresti.eu)

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





## Bideen joana

Algortako etorbidea, 1920

San Inazio eliza alde batean, parean  
soloak, eta arropak zintzilik...

Tranbia gogora ekartzen digun  
errailak, trenbidea, erdi-erdian...

Eta joan-etorriak, bidexkak, bideak,  
burdinbideak, errepideak, eta  
bidelagun dugun denbora beti  
iraganez, igaroz...

Bideak ere badatoz eta badoaz...

Horietan barna ibilitakoak eta  
gabiltzanak gu.

[berbetan]

Chris Hondors gerra argazki-kazetaritzako sari ospetsua emon diote Andoni Berriotxo "Lubaki"-ri (Urretxu, 1982) oraintsu. Andoni Lubaki izenez ezaguna den argazki-kazetaria orain dela urte bi eskas Sopelan bizi da; aita eta beste hainbat ezin sinetsirik, "a ze *disgustua! Gipuzkoatik Bizkaira!*", erretxindu bazitzaizkion ere. Informatika ikasi zuen, programatzailea da, baina, "gustuko banuen ere, ez nion nire bizitza horri eman nahi; argazki kamera hartu, eta horretan hasi nintzen...". Besteak beste, Siria, Egipto, Sahara eta Mozambiqueko gatazka, gerrate zein jendartearen egoerak irudikatu eta helarazi dizkigu. Eta oso argi dauka: "Objektibotasuna ez da existitzen; ez dago egia absoluturik!"

# Andoni Lubaki

## Argazkien B aldetik

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—“Lubaki” ezizenak ez ei dauka gerrako lubakiakaz harremanik...

—Ez, ez dauka. Labur-labur: behin, Saharan, nire abizena ondo esan zuen tipo bat ezagutu nuen; berea Lubaki zen. Nolabaiteko tratua egin genuen: nik Lubaki hartuko nuela, berak Berriotxo... Gero, nire wegunea egiteko, Berriotxo guztiak hartuta zuden; Lubaki begiratu nuen, berak idatzi moduan, libre zegoenez...

—Txikitatik datorkizu argazkilaritzarako erakarpena, zelan hasi zinen?

—Gogoratzen dut ikastolarekin egiten genituen irteerarako beti aitari bere argazki kamera uzteko eskatzen niola, berak: "hau zuretzat onaindik onegia da, beste bat erregalatuko dizut...". Harekin gustura ibiltzen nintzen, garaiko Werlisa bat zen; gero, beti karretek eskatzen nizkion. 5. mailan nengoela 12koa eman zidan, Baigorriara joan eta lehenengo ordu erdian bukatu nuen! Harrezkero 24, 36koak eskatzen nizkion! 21-22 urterekin Urretxuko Kultur Etxeak antolatu zuen Argazkigintzako Hastapen ikastaroa egin nuen. Gorka Salmeronek eman zigun, berak eragin handia izan du nigan; beste irakasleren bat izan banu, agi-

an ez nukeen honetan jarraituko! Kristoren teoria bota, eta halako batean esan zigun: "argazkia errebelatu behar dugu"; kamera ilunaren teoria azaltzeko, esperimentu bezala, karrete baten tapan fotografia-orri bat zeukan jarrita. Errebelatzen hasi, eta ni haluzinatzen! Gogoan dut magia balitz bezala! Likidoan bota, 2 minutu, eta imajinan gu egondako klasea agertu zen! Gerora ere askotan lagundu zidan, karretek eman, errebelatuak egiten, irizpideak emanez...

**“Txanka-zaldi-erregera ohituta gaude! Hemengo erredakziotara argazki hori bidali eta ez dizu inork hartuko...”**

—Freelance argazki-kazetaria. Zenbat du asketik? Soldata finkorik? Argazkiko kobratzen duzu?

—Nire ustez mundu honetan inor ez da aske. Hortik abiatuta, freelance izateak askatasun... nik nahi dudana askatasun handiagoa-edo ematen dit; agian erredakzioak, edo eguneroko argazki-agentzian dagoenak beste askatasun bat izan dezake... Nik baino diru gehiago irabaziko du segurua!! Beste

askatasun hori badu. Halere, nik nahiago dut nire gaiak aukeratu, nire modura egin argazkiak, nire modura saldu... horretan nire askatasuna izan nahi dut! Orduan, freelance izatea da nire hautua, hasieratik. Agentzia batzuekin kolaboratu izan dut, baina soldatapeko eskaintza ere egin arren, pare bat aldiz ezezkoa eman dut.

—Bo5tokphoto agentzia sortu duzu...

—Gari Garaialde, Ander Guillenea, Josu Truebak eta nik sortu dugu; elkartzea era-

baki genuen gauzak okerrera doazela ikusita eta, halere, badagoelako gure ustetan, argazkigintzarentzako espazioa, ez Euskal Herrian bakarrik, mundu mailan ere bai. Halako proiektua hasteko eta gure argazkigintza-bizitza honetan jarraitzeko, elkartuta indar handiagoa dugulakoan.

—“Ez naiz ni izango inork zoratuko duen argazkilaria”. (Argiako zure blogean).

—Esanahi asko ditu, asko... Inoren Ero Ni





izenburua darara sarrera horrek eta...

—“*...bakoitzak bere medioentzako bidaltzen ditu argazkiak. Denek angelu berdina aukeratzeko dugu, denek kontatu nahi berdina. Topiko tipikoak...*”, diozu.

—Agian, egunkari batean sartu eta argazki bakarra ikusiko duzu albistea irudikatzeke, baina, agentzien webgunetara sartzen bazara beti oso “txanka-zaldi-errege” izaten da. Hori pixka bat muturrera eramanda, hemen inguruan lanean dabilen argazki-kazetari, edo ArgazkiPress... beno, ArgazkiPress ez, edo bai, edo halako argazki-agentzietan dabilzanen, azkenean, beti zera bera eskatzen diete: “*atera honen argazkia, hala eta hola*”, txanka-zaldi-errege beti! Ni ere halakoetan eroritakoa naiz, Sirian konturatzen nintzen hasierako egunetan betiko argazkiak ateratzen nituela... Neuk ere neure burua toki itxi batean bezala sentitzen dut. AP-entzat lan egin ez nuen momentua iritsi zen, 5-6 egunez; birtarte horretan argazki ezberdinak egiten saiatu nintzen: mugituak, beste ukitu bat eman go zietenak, teleobjektiboak ez ditut erabilitzen, baina gertuagokoak egiten, beraiengana gerturatu, matxinatuen eguneroko bizitza ateratu... Oraindik hori bilatzen ari naiz, beste puntu hori eman nahi diot.

—Zuk beste alde hori eskain zenezake, baina argitaratze-ahalmena dutenek...

—Gizarte honetan irudiz josita bizi gara, goizean jaiki eta irudi piloa gure aurrean, metroan goazela, iragarkien argazkiak e.a. Baina gizarte bezala ez dakigu hori ondo digeritzen. Adibidez, dudan argazkia erakutsiko nizuke: matxinatu batzuekin suntsitutako etxe batean sartu nintzen, etxe horretan hiruzpalau egun lehenago egon nintzen, eta esan nuen: “*nik ez ditut argazki berdinak atera nahi!*”. Mugituak, desenfokearekin jolas-tu, ideia zen izua transmititzea, momentuan nik sentitzen nuen beldur hura argazki bidez helaraztea. Erredakzio batean eserita dagoen tipo bati hori bidali eta esango du: “*tipo hau niri burla egiten ari da!*”. Badaukat AP-koei asko gustatu zitzaizkien argazki bat: Aleppoko kaleetan bizikletaz dabilen tipoa, eskubiko eskuan gasolio-garrafoi txikia. Ziur hartuko didala AP-k: “*porque refleja que la ciudadanía*

*o los civiles están viviendo una época de escape...*”. Baina, pixka bat ezberdinago nahi eta halako ekorketa bat egin nion. Hemengo edozein erredakziotara argazki hori bidaltzen baduzu inork ez dizu hartuko! Ezta matxinatuaren argazki mugitua ere! Erakutsi dizkiet kanpoko aldizkarietako editoreei eta erakusketak-editoreei, eta biak oso gustuko dituztela esan didate, besteak baino askoz hobek

## “Argazkiok saritu dizkidate nire parean norbait hiltzen atera dudalako; zer edo zer aldatu da?! Sentsazio mingotsa”

direla. Baina guk ez... Egunkaria ireki eta halako argazki bat ikusiz gero, esango dugu: “*¡jo! Inprimatzean tinta isuri-nahastu zaie!*”. Horrekin ere borrokatu behar dut... Txanka-zaldi-erregera ohituta gaude; neuk bakarrik ezin dut hori aldatu, gustatuko litzaidake, baina ezin dut.

—Siria, Aleppo, AP agentzia; argazkionagatik Chris Hondros sari entzutetsua jaso duzu oraintsu. Pozik baina triste ere bai...

—Gerra argazki-kazetariak atzean beti halako berun-zama dauka; noski, besteen minarekin-eta guk argazkiak ateratzen ditugu. Aurretik esan bezala: argazki hauek saritu dizkidate pertsona hori nire aurrean hil egin delako edo hiltzen ari zelako eta nik argazkia atera niolako. Askotan pentsatzen dut: nik argazki hau atera dut eta zer edo zer aldatu da? Norbaiti, goiko ofizialaren batean, triapak

## “Askotan gure lana erabat baldintzaturata dago hango kazetarien laguntzara; hori ez da sekula baiolesten!”

hala mugitu dizkio eta esan du “*hemen zerbait egin behar dugu!*”? Sentsazio mingotsa, beraz. Aleppoko argazkiak berrikusten hasi eta kontua egiten: hemen agertzen den Jamil hilda dago, Abu Hamza ere, baita Yasin ere, Abdallah ere bai... Uf! Geldi hadi! Berriz gogoratzeak ez dit... Gustura nago gerra-kazetaritzako saririk garrantzitsuen delako,

baina era berean beste B alde hori ere badu.

—Non duzu muga? Zelan mantendu?

—Nik argazkiak atera ateratzen ditut, atera behar ditut; ni ez naiz ume hori tirokatu duena edo emakume horren etxea bonbardatu duena. Puntu. Argi eta garbi. Baina argazkia ateratzen ari naitzaionak ezetz esaten didanean: matxinatua bada, “*segurtasun kontuengatik, guregatik, dela eta*”, niri ho-

rrek ez... Baina pertsonak berak esaten badit ez duela bera edo bere familia ateratzerik nahi, ez daukat inolako arazorik. Muga non dagoen? Argazkiak bidaltzean, editatzen ditudanean neure buruari esaten badiot “*ez dit batere ekarpenik egiten...*”. Argian askotan esan didate: “*ez duzu hildakoen argazkirik?*” Erantzuna: “*bai; baina ez dute inolako ekarpenik egiten, nire ustez ezta testuinguruari ere, eta oso bortitzak dira*”. Argiako blogean “Argazkien zilegitasunaz” sarrera idatzi nuen...

—Gerrako kazetarien egoera: arriskuak, jatorriaren araberrako ezberdintasunak e.a. jaso dituzu Argiako zure blogean...

—Aurrekoan telebistan entzun nuen Sirian 12 kazetari hil direla; izugarri haserretu nintzen! Belarrondokoa merezi zuen! Aurrekoan hildako kazetarien zerrenda argitaratu genuen Wikipedian, gehienak siriarrak dira. Kon-

txo ere egiterik! Hori ez da sekula balioesten. —Gerra-kazetari atzerritarra, askori burura: objektibotasuna, neutraltasuna. Baina objektiboaren norantza erabakitzean bertan, galtzen ei da.

—Objektibotasuna ez da existitzen! Existitzen dela dioena ergel hutsa da! Monetek baditu koadro bi. Ahalik eta zehatzen margotzen saiatu zen, eta handik 30 urtetara

## “Imajinatu bihar ez dagoela irudirik; gure mundua erori egingo zen! Halere, ez gara horiek intrepreatzeko gai!”

egun, sasoi, ordu berean berriro berdina egiten saiatu zen. Ezin izan zuen! Niretzat berdea dena, alboko daltonikoarentzat? Zeinek dauka egia? Ez dut objektibotasunean sinesen. Eta alde ala kontra jartzearena: kazetaria ezin da objektiboa izan, baina jakin behar du ez posizionatzen, ez badago arrazoi oso argirik, hau da: zure aurrean pertsona bat beste pertsona bat hiltzen ikusten baduzu, nahiz eta hiltzaileari sinpatia izan, ezin duzu egindakoa gorde, kontatu egin behar duzu, barru-barruan izorratu arren. Bestalde, han zaudela, badira argitaratu ezineko kontuak, zure bizitza arriskuan jartzen duzulako, edo zurekin daudenenak; eta horiek guztiak kontuan hartu beharrekoak dira.

—Egia aurkitzea gaitza bada, gerratean gaitzago! Bakoitzak berea du. Erdian, zu.

—Ez dago objektibotasunik, ez dago egia

absoluturik. Han zarela egia bat irudikatzea, edo egiara gerturatzea, edo egia bilatu nahi izatea, niretzat zinismo-ariketa da. Gainera, oraindino asko amorratzen nau unibertsitatean oraindik irakasleek esaten dietela “*objektiboak izan behar duzue eta egia kontatu*”. Lehengoan unibertsitatean edo institutu batean hitzaldia eman nuen eta irakasleak: “*Andoni Lubaki, orain ikusiko duzue adibide*

*bat nola objektibotasuna eta egia zertu behar den...*”, eta nik: “*barkatu, nik ezin dut horri buruz hitz egin...*”. Ikasleak barrezka hasi ziren, baina agian ez nintzen neu hitzaldia ematera joan behar zuena. Eta suaren erdian ni? Nire lana da. Batzuetan ez dut boluntarioki egiten, pentsatzen dut “*argazki ona egon liteke...*”, eta banoa. Batzuetan gertatzen da eta... listo!

—Zu mundu mailan, lehen lerroan zabalitza; gure bazter txiki “lasai” honetara zer gomendio eskainiko zeniguke?

—Lehenengo mailan ulertu dizut! Beste elkarrizketa batzuetan ere galdetu didatelako: “*Champion League-an zaude, saria Urrezko baloia da...*” Geldi! Argazkigintzan ere hala hasten bagara, akabo! Benetan, gorroto dut argazkilari izarraren irudia! Gatazken lehen lerroan esan nahi zenuen... Ez dut uste ino-

lako autoritate moralik dudarik inori gomendiorik emateko. Bakoitza bizi dadila nahi duen bezala, zoriontsu izan besteak izorrratu gabe...

—Irudiak irakurtzeko zelanbaiteko zeraren beharraz galdetzen nizan...

—Txiki-txikitatik erakusten digute nola irakurri, nola idatzi, ingelesa, hau triangelu hori bat da, hau lauki urdin bat e.a. Eta ez gaituzte irudiak interpretatzeko prestatzen! Hizkuntza unibertsal bakarrenetakoa izan liteke, musikarekin parekatuta, eta ez digute erakusten nola interpretatu; ez naiz ari ea photoshop-ik erabili duen eta halakoz... Oraindik unibertsitateetan esatea argazkia objektiboa dela eta argazkiak dagoena erakusten duela! Ez daukagu kulturarik! Argazkilariok lan egin behar dugu kultura hori lortzeko, baina gizarteak ere bai! Imajinatu bihar ez dagoela irudirik, argazkigintza bukatu da, fisikoki eta kimikoki ezin da gehiago; gure mundua, momentu honetan sortuta dagoen moduan, erori egingo zen! Eta hala ere, ez gara horiek interpretatzeko gai! Hau da, El Mundok Arnaldo Otegi aurpegiara itsusi batekin argazkia argitaratu badu, ez gara gai interpretatzeko, konturatzeko interes, intentzio edo manipulazio batengatik egin dutela. Oraindik, ez dut halakorik antzematen; pena handia ematen dit! Nire ustez txikitatetik irakatsi beharko liguketen gauza bat izan beharko litzatekeelako, irakurtzea eta idaztea bezala; aurrez aurre hizkuntza bat dugu, eta ez gara interpretatzeko gai. ○

### Itzulerak eta proiektu barriak

—Siria, Egipto, Sahara, Mozambique e.a. Itzultzean gatazken jarraipenik egiten duzu? Buelta zelan bizi duzu?

—Niretzat ez da hainbestearainoko shock-a. Oso zortedun sentitzen naiz; hemen bizitzeagatik zortedun gara. Badakizue zer den Sirian 15 egun dutxatu gabe, kristoren hotza, batzuetan gosea, beste batzuetan egarria ere pasa ostean, etxera etorri sukaldetan baso bat ur edan eta dutxan ur beroa irtetzea?! Niretzat sekulakoa da! Beraz, buelta beti pozik! Joatea

gustatzen zait, baina bueltatzea ere bai! —Eskuarte beste proiektuen bat: bidaia, erakuste edo dena delakoa? —Proiektuak, beti, milaka! Orain, Bo5tok-ekin nabil buru-belarri. Bestalde, nahiko definituta ditudanera arte ez dut gogoko horien berri ematea; eta txartela erosi arte ez zait hurrengo bidaiatz hitz egitea gustatzen...

—Zuk zeuk erabakitzen duzu nora joan eta?

—Bai. Batzuetan, errentagarria izango den

ala ez ere begiratu behar duzu. Momentu honetan, nigatik balitz eta munduko diru gutzia banu, Afrika Erdiko Errepublikara joango nintzateke, oraintxe bertan! Baina ez daukat hara joateko dirurik! Badakit han zer gertatzen ari den jakiteko interesa badagoela, baina joan-etorriko txartelak bakarrik 2.600 euro dira, gehi han behar duzuna... Horregatik, errentagarritasunarena ere begiratu behar duzu: “freelance puta bat” naiz, kontuak egiten hasi behar dut...




# Harrobi ederra

Jauzi ikusgarriak egiten dituzte skatearrek La Kantera skate-pistan.

Ezaguna da oso gure eskualdean, baita kanpoan ere; eta pribilegiatuak erabiltzaileak: itsaso aurrean, inguru parebakoan jolasten dira. Gozaten dute eta gozarazten dute. La Kantera skate-eskolan hasten dira Getxoko skater asko, eta Borja Casas Izagirre eskolako arduradunak erakutsi gura du jendeak skateagaz zer egin dezakeen, pistan gertatzen diren une magikoak jasoz eta betiketuz.

Argazkiak: **Borja Casas Izagirre**







## Euskaldunon Gabonak

# Gabonetako erritu eta ohitura zaharrak ezagutzen dituzu?

**Ohitura barriak zabaldu dira Gabonetan, baina oraindino gordetzen dira erritu zaharrak hainbat etxetan. Neguko solstizioa oso garrantzitsua izan da beti euskaldunontzat eta berau ospatzen da. Ezagutzen dituzu, barbarako, neguko enborraren eta ogi salutarearen ohiturak?**



Gorostia erabiltzen da Gabonetan etxea apaintzeko

**Solstizioak** une bereziak dira hainbat kulturatan, baita gurean ere. Udakoa ospatzen dugu San Juan gaueko suteakaz eta negukoa Egubariagaz. Abenduaren 21a inguruan da neguko solstizioa. Eguberri izena eguzkiaren jaiotzagaz lotuta dago, izan ere, urteko une horretan hasten dira egunak luzatzen. Nekazariarentzat garrantzitsua da, lurraren emankortasun-garaia dakarrelako. Une garrantzitsuak dira solstizioak eta horixe da euskaldunok ospatzen duguna.

Gaur egun, Olentzerok ekartzen dizkigu opariak abenduaren 24ko gauean baina, etxe askotan, oraindino gordetzen dira bestelako ohitura batzuk, antzekoak Euskal Herri osoan. Eta Uribe Kostari dagokionez, zelan ospatzen genituen guk Gabonak? Zeintzuk dira gure ohitura zaharrak eta zeintzuk gorde dira gaurdaino? Ezagutzen dituzu? Barbarako, badakizu zer jaten zen lehen Eguberrian gure etxeetan?

Urteko familia-afaririk garrantzitsuenetakoa zen Gabon gauekoa, baita gaur egun ere. Bizkaian, antza denez, ohitura zen gurasoen etxera joatea afaltzera norbere seme-alabakaz, eta Gabon-otzara eroatea, jaki eta likoreakaz. Baina zer jaten zuten gau hartan? Lehen, menua oso finkatua zegoen eta antzekoa zen leku guztie-

tan, baina, Euskal Herriko Atlas Etnografikoan jasotzen denez, aldaera txikiak zuden herri batetik bestera. Barbarako, Leimoizeko Andraka auzoan jaten zituzten: ogi-zopa oilo-saldagaz, aza edo azalorea,

### Gabon gauean aza, arraina edo okela, itxaur-saltsa eta konpota

orio-aza, bakailaoa bizkaitar erara edo txerri-solomoa, itxaur-saltsa edo madarikonpota, kafea eta likoreak.

Aza edo azalorea etxe gehienetan afaltzen zituzten baina, agian, bigarren platerara aldatzen zen gehiago. Algortan, oilasko gisatua jaten zuten arrautzatzatutako zerbaren orri-mamiakaz eta, zenbait etxetan, barraskiloak; azken burukoa ere intxaur-saltsa eta konpota. Plentzian, barriz, an-

gulak edo bisigua afaltzen zuten azaloreaz gainera, baita konpota, turroiak, kafea eta likoreak ere. Baina, afariar harago, gau berezi horretan, beste ohitura batzuk gorde dira hainbat etxetan, ogi salutarearena eta neguko enborrarena kasu.

### Ogia eta enborra

Ziur zuetako askok oraindino egiten duela: Gabon gauean, afaltzen hasi aurretik, ogiari koskorra kentzen zaio (biribila bada baztar bat), bedeinkatu eta mahai-oihal azpian gordetzen da gau osoan eta, gero, hurrengo urtera arte. Ogi zati horrek sendatzeko dohaina ei dauka, eta amorrutik babesten ditu animaliak eta pertsonak; jaten duena ez da amorratuko eta ez dio kalterik egingo inori, beraz, txakur amorratuei jaten emonez gero lasaituko dira. Ogi salutarearen esaten zaio.

Baina bestelako erabilerak ere badauz-



Neguko enborra Gabon gauean erretzen da

ka. Getxo, Gorniz eta Plentzian itsasora edo erreka ere botatzen da, itsasoa baretu edo erreka bere bidetik urten ez dadin. Algortako Portu Zaharrea, gainera, hurrengo urtean berakatz-zopa egiten dute ogi-koskorragaz.

Neguko enborrarena da, Gabon-gaueko beste ohitura bat. Baserrietan ohitura da Gabon-gauean argia piztuta mantentzea gau osoan: gau horretan sutan erretzen den enborra gau osoan mantentzen dute isiotuta. Beraz, handia behar du, gau osoa iraun dezan. Enborrak ere dohain

### Ogi-koskorra mahai-oihal azpian gordetzen; sendatzeko dohaina zeukan

bereziak ei dauzka eta, batzuetan, afaria prestatzen da su horretan.

### Errondak

Urteko sasoi jakin batzuk baliatzen dituzte gazteek errondak egin eta eskean ateratzeko, Ageda Deuna eta Gabonak kasu. Akaitze Kamiruaga Labayruko Herri-ondarea ataleko arduradunak kontatu duenez, sasoi honetan daude batuta sagarrak,

intxaurrak eta uzta, eta hilda txarria. Inguru honetan, lehen, Urtebarri-eguneko erronda egiten zuten umeek. Kantatzen zuten: “*Urtebarri barri / txarri belarri / dekonak ez dekonari / nik ez dekot eta niri / ezpabere txarri belarri!*”. Frutaren bat emoten ei zieten, eta lantzean behin, txanpon txiki bat. Kamiruagak dioenez,

oraindino egiten dute leku batzuetan, baina “*oso motelduta dago*”.

Azkenik, Gabon zaharrea, gazteek okerrak egiten ei zituzten hainbat bazterretan: behiak korta batetik bestera aldatuz edo batu bako tresnak plazara ateraz, e.a. Agian, gaur egun arte iritsi da ohitu-

### Gabon gauean sutan erretzen zen enborra isiotuta mantetzen zen gau osoan

ra, baina oso aldatuta: gazteek gau osoan egiten dute parranda gaur egun eta, tartean, ziur okerren bat baino gehiago egingo dutela, baina garaiko txantxakaz antzekotasun gitxi izango dute.

Egunotarako ideien bat emon badugu pozik amaituko dugu urtea, baita 2013ko UK-ko azken zenbaki hau ere. Ogi-koskorra gorde dezakezue, enborra erre eta bihurrikeriaren bat egin. Baina ez izan okerregi, Olentzerok ikatza ekartzetik gura ez baduzue. Gabon-kantak abestuz itxarongo diogu guk, Uribe Kostakoak kontatzen segi dagigun 2014an ere, zaharrak eta barriak, irakurleok gozarazteko. Zorionak eta urte barri on! ○

Ogi salutarearen ohitura Getxoko etxe batean





**BETIKO**

IKASTOLA

*Kalitatezko irakaskuntza euskalduna*

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez  
Tlf: 94 464 23 64  
94 464 33 07  
Fax: 94 464 22 05  
Helbidea: Artatza auzoa 84  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

**GAVRKO!**



GIZONENTZAKO  
MODA

Tellexe 5  
ALGORTA  
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

## Gure Sor Lekua (1956)

Parisen aurkitu dute, audio barik, **Elortza-  
renak baino lehenagokoa** den lana



Oro har, garaiko baserri eta arrantzale giroko irudiz osatzen da

**Oraintsu arte** Gotzon Elortza (Bilbo, 1923-Getxo, 2012) getxoztarraren dokumental laburrak jo dira lehenengoko euskal lantzat. Ostera, *Ereagatik Matxixakora* (1959), *Aberria* edo (zentsuragatik) *Erria* (1961), *Elburua: Gernika* (1962) eta *Avignon* (1963) Elortzaren lanak baino lehenagoko *Gure Sor Lekua*, ordu eta erdiko koloretako dokumentala, aurkitu dute Parisen.

EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko NOR taldeak emon zuen aurkikuntzaren barri pasa den hil akabuan. Taldeko kide Josu Martinez EHUko ikerlari eta zinegileak topatu du filma etxe partikular batean, eta beragaz batera taldeko kide eta ikerketaren arduradunetako den Josu Amezaga algortarra ere prentsa-aurrekoan izan zen. Ezagutzera emon zuten, *Gure Sor Lekua* egoera onean eta oso-osorik bada-  
go ere, kopia mutua da, hau da, ez dauka audiorik. Alabaina, euskaraz filmatua dela baieztatu dute, estreinatu zen sasoi-

an ikusi zuten lekukoek eta garaiko prentsa-artikuluetan zein dokumentuetan egiaztatu dutelako. Diotenez, Andre Madrek (jenerala zen) zuzendu zuen lana, hazpandarra berori, eta Hazparden (Lapurdi) estreinatu zen 1956an. Martinezek azaldu zuenez, *lapurtar baten begietatik egindako lana da, garaiko Euskal*


**«Andre Madrek osatu  
zuen, Hazparden  
estreinatu zen eta  
diasporari zuzendua zen»**

*Herria erakusten du, zazpi probintziak daude, oro har, baserri zein arrantzale giroko irudiak jasotzen ditu*. Jakinarazi dutenez, diasporako euskaldunei begirako lana izan zen, *“herria irudietan ikusi eta herrimina kentzeko”* asmoz egina.

Ikerketa-bidean egonik, besteak beste, audioa lortzeko helburuagaz, hilaren 20an Hazparneko Zinegin euskal filmen festibalean bertsio laburra eskainiko dute, Joserra Senperenaren musikaz jantzita. ○

## Bakarka Areetan

Eñaut Elorrietak *Deserriko kantak* abestuko ditu **hilaren 28an**, musika-eskolan



Bakarleri bidean Elorrietak Txus Aranburu, Igor Telletxea eta Ruben Caballero izan ohi ditu alboan

**KenZazpiko abeslariak** bakarkako ibilbideari ekin zion *Deserriko kantak* (2013, Elkar) diskoagaz. Deserria edo erbestea ardatz duen hamar kantatiko lan monografiakoaren letrak hainbat poetaren edo idazle-  
ren berbakaz osatu ditu Gernikako kantariak, horien artean, besteak beste: Joseba Sarriñandia, Mario Benedetti, Harkaitz Cano, Joan Oliver e.a.

Areetako Andres Isasi musika-eskolan hilaren 28an (ez da inozentada) 20:00etatik aurrera eskainiko duen kontzertuan (sarrera: 12 euro) Elorrietak lagun izango ditu Txus Aranburu teklatueta, Igor Telletxea

baterian eta Ruben Caballero gitara elektrikoan. Dagoeneko eskainitako zuzeneko emanaldiei erreparatuz gero, diskoko hamar abestiez gainera beste hainbat eskaini ohi dituzte zuzenekoetan; hori gogoan, besteak beste, Areetan gozatu ahalko diren artean egon litezke: “Geografia”, “Non dago nire herria?”, “Propostas para a definição do exílio”, “Besamotzaren besoa”, “Tren luzea”, “Gaua”, “Azken balsa”, “Itzulera”, “Etxera itzuli”, “Talaioaren gogoetak”, “Deserriko kontradantza”, “Gernikan”, “Mendigoxalirena” eta “Nire aitaren etxea”. ○

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

## lehiaketa > Ukan taldea finalista

Joan den azaroaren 29an Bilborocken egin zen Banda-Lehia musika-lehiaketa-ko aurtengo edizioako finala. Finalisten artean 2012ko urrian sortu eta Sopela, Urduliz eta Algortako kideek osatutako Ukan taldea zegoen. Sara, Gorkita, Iskander, Raul, Sergio, Lander eta Karrasek osatzen duten taldeak, diotenez, *“punk-Rock melodikoa eta ska-punka”* nahasten du, *“melodia goxo eta haize doinu dantzarien artean”*. Lehiaketako lehenengo saria Arratiako Eskean Kristo taldeak eroan bazuen ere, Banda-Lehiako bosgarren edizioako bigarren finalista, edo hirugarren postua, lortu zuten uribekostarrek. Portu Zaharrean grabatutako “Beste behin” kantaren bideo-klipa youtuben ikusgai duzue.

Info+: [www.facebook.com/ukantaldea](http://www.facebook.com/ukantaldea)

## jaialdia > hatortxurock

Egun bakarren egingo da aurten, hilaren 28an, azken urteotan legez Atarrabia eta Burlata artean dagoen “Entrecementerios” deritzon eremuan Hatortxurock euskal preso politikoen aldeko aldarrikapen jaialdia. Desagertzeko helburuagaz jaino zen jaialdiko karpapean eszenatoki bi egongo dira, eta txandaka batean gero bestean (minutu bat bera ere ez galtzeko!), 12 taldek joko dute: Sociedad Alkoholika, Kaotiko, Governors, Ze Esatek, Flitter, Willis Drummond, Obrint Pas, El Trono De Judas, Glaukoma, Non Servium, Skakeitan eta La Raizek. Krisialdia ezagun, aurten sarrerak merketu dituzte, aldeaz aurretik erosiz gero 15 euro balio dute, egunean bertan 18 euro.

[www.hatortxurock.org](http://www.hatortxurock.org)

## diskoak

**Astiro**  
Urtz  
Baga Biga



Agur esan zutenetik hamar-kada bat joan den honetan, barriri kaixo esateko gogoz itzuli da Pasaia lau-kotea; halere, ez ei datoz arineketa, *Astiro* izenburua jarri diote-eta zazpigarrena duten lan barriari. Ostera, hamar kantuk osatutako lana rock doinuaz ondu dute Josu Ariztegik, Xabier Camarerok, Iñigo Cousillasek eta Victor G. Arguellesek.

**Tximela kapitainaren...**  
Joseba Tapia  
Autoekoiz Zukuraren Biolina



Soinujole ezagunak, oraingoan gitarra lagun *Tximela kapitainaren izarrak* lan barria ekoitzi du. Bere webgunean edo Gor argitaletxean eskura daiteke Lasartekoaren seigarren lana. Doinuan Luis Fernandez (biolontxelo) eta Jexux Aranburu (organoa) ditu alboan, eta Luis Rezolak 1937an Duesoko kartzelan idatzitako bertso eta poemak oinarri letretan.

**Bidea eta Denbora**  
Anari  
BideHuts



“Bihotza Galdut” kantagaz eta horren bideoagaz emon du ezagutzera Anari lan barria: *Bidea eta Denbora*. Anari Alberdi azkotiari musikaria buru duen eta Mikel Abrego, Xabier Olazabal, Drake eta Borja Iglesias-ek osatzen duten taldearen lan barria zuzenean grabatutako lana da, halako bigarren. BideHutsen wegunean eros daiteke.

Garaizar  
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- lokalak eta etxebizitzak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977-6 • [regaraizar@euskalnet.net](mailto:regaraizar@euskalnet.net)  
[www.garaizar.biz](http://www.garaizar.biz)  
Illota kalea 1 • ALGORTA

Turikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguniko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B  
T. 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T. 460 01 87  
48990 NEGURI 48990 GETXO

Getxoko Andra Mari  
Gasolindegia

Txartel hau  
aurkezten baduzu  
**%50eko**  
deskontua  
izango duzu zure  
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean

Tf. 94 430 15 00

(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki  
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45  
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

## Poesia kaierak ugaritzen

### Munduko poeten euskarazko antologiak plazaratuko ditu Susak datorren urtean

**Beñat Sarasola** idazle eta literatur kritikiariaren ardurapean, Susa argitaletxeak Munduko Poesia Kaierak bilduma osatzen joateko hazia erein du. Daborduko hainbat loratu badira ere, euskarara ekarritako poesiaren alorra nahiko landua dagoenik ezin esan. Sail horretako fruituak ugari daitezzen helburua du ekimenak: udabarrirako iragarri dituzte munduko hiru poetaren euskarazko antologia, udagoienerako beste hirurenak; urteko sei lan.

Sarasolak aurkezpenean azaldu zenez, "kaierok poesia modernotzat jo daitekeena jasoko dute; XIX. mendearen erdiadetik gaur egun artekoa, baina autore guztiak hilak izango dira". Bilduma aurkezten duen aurrekiera edo aurkeztu dute, euskaratutako lehenengo sei poeten lanen la-

**«Georg Trakl, Maria Merce Marçal eta Aime Cesaire euskaraz udabarrirako»**

gin banaz osatutakoa. Hori abiapuntu, apirileko munduko poeten uzta hauxe: alemanieratik itzulitako Georg Traklen (Austria, 1887-1914; itz.: Anton Garikano) poemak, katalanetik Maria Merce Marçalenak (Katalunia, 1952-1998; itz.: Itxaro Borda) eta frantsesetik Aime Cesaireenak (Martinika, 1913-2008; Iñigo



Info+: [www.kaierak.com](http://www.kaierak.com)


Aranbarri); azarokoa hurrengoa: portugeseetik Carlos Drummond De Andraderenak (Brasil, 1902-1987; Koldo Izaguirre), ingelesetik Emily Dickinsonenak (AEB, 1830-1886; Angel Erro) eta gaztelertatik Miguel Hernandezenak (Espainia, 1910-1942; Josu Landa). 2015erako hainbat itzulpen ere bideratuta dituzte, hauenak: Anne Sexton (Harkaitz Cano), Gabriel Ferrater (Aritz Galarraga), Eugenio Montale (Anjel Lertxundi) eta Jorge de Sena (Rikardo Arregi Diaz de Heredia). Kaierak 10 euroan salduko dira, baina webgunean harpidetuz gero 40 euroan urteko 6 kaierak eskura daitezke. ○

liburuak



**Gure erditzaeren jabe**  
Estitxu Fernandez Maritxalar  
Erein

"Erditze kontzientearen garrantzia: Informatuta egotea eta gure egoeraz jabetzea" daroa azpitu lutzat, prentsa-oharrean azaldu dutenez "Estitxu Fernandez hiru bokazioak: amatasuna, psikologia eta kazetaritza" buztartzen dituen lanak. Erditu diren zenbait emakumeren bizipen-bilduma da.



**Kresala**  
Txomin Agirre  
Erroa

"Euskara errazean" sailean, "gaurko moldeetara ekarrita, argazki eta testu osagarriak" argitaratu dute Txomin Agirrek (Ondarroa, 1864-Zumaia 1920) XX. mende hasieran bizkaiera ederrean kalera-tutako *Kresala*: arrantzale eta kostaldeko giroa jasotzen dituen euskal lan klasikoak.

[kirola]

## Andra Mariko XXXII. krosa

### 8.800 metroko ibilbidea Andra Mari kiroldegian hasiko da kategoria guztientzat



Info+: [itxasargiaelkarte.wordpress.com](http://itxasargiaelkarte.wordpress.com)

**Urtero legez** abenduagaz batera dator Itxas-Argia Kultur Elkartek antolatzen duen krosa. Aurtengoa XXXII. ekitaldia izango da, abenduaren 29an, domekan. Nagusien kategoriak 8,8 kilometroko ibilbidea izango du, eta goizeko 11:00etan hasiko da; haurrek barriz, lasterketa berezia izango dute: 2000 urtean eta beranduago jaiotako ume guztiek 2.500 metroko lasterketan parte hartzeko aukera izango dute, nagusien lasterketa baino lehenago, goizeko 10:30ean. Sariak mailaka banatuko dira ekitaldia amaitu ostean, eta egin beharreko ibilbidea Andra Mariko kiroldegian hasiko da, Azkorrira heldu eta Galeako pasealekutik hasierako kiroldegira heltzeraino, bertan egongo da-eta lasterketaren helmuga.

Joan den urteko XXXI. edizioaren sailkapenaren arabera, helmugara lehenengo postuan heldutako Jon Salvadorrek 28:53 minutuko marka egin zuen, azken postuan meta igaro zuenak berriz, 54 minutu behar izan zituen ibilbide osoa burutu ahal

izateko. Parte hartutako pertsona guztien emaitzak kontuan hartuta, lasterketa egiteko batez besteko denbora 43 minutukoa izan zen, eta 543 korrikalarik lortu zuten helmugara iristea.

**«Umeentzako 2.500 metroko ibilbide berezia prestatu dute»**

Informazio gehiago gura duenak, edota herri-lasterketan izena dohainik emon gura duenak hainbat bide dauka horretarako: Itxas-Argia elkartera (Iturribide kalea 24) hurreratzuz egin dezake, baita 944 303 411 telefono zenbakira deituz ere, edota *email*-era mezua bidaliz ere bai: [elkarte@itxas-argia.com](mailto:elkarte@itxas-argia.com). Algortako Kantxa Kirol Moda dendan (944 911 882) ere egin daiteke izen-emotea. Horrez gainera, egunean bertan ere izena emoteko aukera egongo da, goizeko 10:15 arte. Gabonetako gehiegikeriak alde batera utzita, 2013ari agur esan eta urte barriari harrera osasuntsua egiteko plan ezin hobea! ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa  
Kirol  
moda



**350** M<sup>2</sup>  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

**Haizea J. Amezaga** > Munich (Alemania)

## “Laster izango dugu Euskal Etxe ofiziala”

Urrian joan zen Haizea Jennifer Amezaga Munichera, bizitza-plana antolatu bitartean. Mexikora edo Ekialde Hurbilera joateko asmoa zeukan, baina Bavariak, antza, badauka zer edo zer eta bertan lotu da. Atzerritar hizkuntza-irakasle dabil, alemaniera menperatu ezean oso zaila da-eta kazetaritzan aritzea: alemaniera edo bavariara jakitea ezinbestekoa da ohiko ekintzak gauzatzeko. Amezagak dioenez, bavariarrak atseginak dira eta euren hizkuntza apur bat ezagutzuz gero berehala irekitzen dira. Alemaniarrak, ordea, ez hainbeste, eta Munichen azken horiek dira gehien.



**Munich** Euskal Herria bezalakoa ei da gauza askotan: koadrila, poteoa... Korrika eta Euskal Jaiak ere ospatzen dira!

### Zer bisitatu eta zer ez galdu

Alpe mendien eta BMW auto-fabrikaren herria da, baita Bayern futbol-taldea ere (Javi Martinez euskaldunaren gaur egungo taldea). Garagardoa eta haragia dira hiriko jaki nagusiak, baita gailetak eta pastelak ere; batez ere Gabonetan. Udan Oktoberfest jaialdia egin zen tokian TollWood Gabonetako merkatu handia dago orain: sangria moduko Glühwein ardo beroa hartzen dute jengibre-gailetekin, elur azpian gabon-kantak entzun bitartean. Marienplatz plazan ere badago merkatu polita: artisauek jostailu eta trikimailu deigarriak saltzen dituzte. Gainera, Munichek Euskal Etxea izango du laster: euskaldun talde handia elkartu da eta Euskal Etxe ofizial bihurtzeko gogoia dau-

kate. Amezagak euskal enbaxada gisa ikusten du; Korrika, Euskal Eguna eta antzekoak egiten dituzte: sanandresak ospatu barri dituzte, sagardo, talo eta guzti!

### Harritzeko modukoa

*Dirndl und Lederhose* arropa tradizionala: ezaguna da Oktoberfest eta udako jaietarako jantzen dutelako. Alemaniarrak ez dute oso gustuko baina, txantxak egin arren, egun berezietan jantzen dute, baita kargudun pertsonak ere; lanerako ere jantzen dute arazorik gabe, beren izaera bavariarrak harro daudelako. Amezagak izugarri miresten ditu. Bestalde, Euskal Herria eta euskaldunak ondo ezagutzen dituzte han: batzuek Lizarazu eta Javi Martinez futbolariak, beste batzuek gure kostaldea, eta beste batzuek gure jaiak. Gutxitan azaldu behar ei dira gure berezitasunak: *“Acho! Baskisch! Sind nicht Spanien und nicht Franzoisich! Gut!”*. ○



### Nor da

**Nongoa**  
Algortakoa  
**Adina**  
30  
**Zertan dabil**  
Atzerritar hizkuntza-irakasle dabil  
**Ikasketak**  
Kazetaritza ikasi du  
**Noiz arte**  
Urrian joan zen lagun bati bisita egitera eta itzulera-bidaia atzeratu zuen: urte batzuk geratzeko asmoa dauka

### Non dago

**Lurraldea**  
Alemania (357.021 kilometro koadro)  
**Hiria**  
Munich (1,5 milioi biztanle; Bavariako hiriburua, Alemania hegoaldean, Berlinetik 505 kilometrorra)  
**Hizkuntzak**  
Alemaniera eta bavariara  
**Dirua**  
Euroa  
**Bavariar berba batzuk**  
*Sehr vus:* Aupa, zelan?  
*Freind:* laguna  
*Hawedere:* Egun on!  
*Ogschdocha:* mozkorra  
*Moltzeit:* hamaiketakoa  
*Brotzeit:* afari azkarra

## Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko [www.euskalherrikoimitologia.com](http://www.euskalherrikoimitologia.com) webgunera jo.



Erio. Ilustrazioa: Daniel Castello

## Erio **Hotza eta iluntasuna neguarekin batera heldu dira, guri ere akaberako momentua helduko zaigun legez.**

**Erio edo Balbe** etorriko da une horretan, heriotza edota hilzoria irudikatzen dituen izakia baita. Bai aberatsek, bai txiroek, bai ongileek, bai gaizkileek, lehengo edo geroago aurre egin beharko diogun izakia. Unea iritsi dela uste duenean, hilzorian dauden pertsonen oheburukora joaten da, haien arimak beste leku batera eroateko. Han hobeto edo okerrago biziko dira, bizitzan izandako portaera gorabehera. Txakurren jarraikako eta etengabeko ulua Erio gertu dabilenaren seinale da. Hala, pertsonaia honetan sinesmen paganoak eta kristautasunak ekarritakoak nahasten dira.

### Kondaira

Behin batean, Herminio, Lizarragoikoatik zetorrela mendian artaldea zaintzetik, gerroz eta okerrago sentitzen hasi zen. Indarrak apurka utzi zuen haren gorputza, eta

sendagilea haren ohera iritsi eta izututa sukar handia zuela egiaztatu zuenerako, heriotzetik gertuago zegoen bizitzen jarraitetik baino. Azkar batean txertoa jarri zion, zoritxarreko gizonaren emazteari okerre-

### «Txakurren jarraikako eta eten bako ulua, gertu dabilenaren seinale»

nerako prestatzen joateko esaten zion bitartean, izan ere, egoera kritikoa zen jada eta ez zuen espero gizona osatzerik.

Herminiok dio konorte barik egon barik egon bazen ere, hitz horiek entzun zituela, ohean etzanda eta izerdi patsetan zegoela. Une horretan bertan izan omen zen itzal moduko bat oheburukora hurbiltzen ikusi zuen unea, nolabaiteko tunel luze eta iluna ekarriz. Erio zen, eta mantso hurbiltzen zen heinean, txakurrak uluka zebiltzan kanpo aldean, bertan zeudenei

haren hurbiltasunaz ohartarazten saiatuz.

Azkenean harengana iritsi zenean, burua hurbildu zuen gaixoaren belarrira, eta ahots gozo eta, aldi berean, zorrotzarekin, nardagarria eta erakargarria aldi berean, jada bazekiena esan zion. Haren bila etorri zen, leku urrun batera eramateko asmoz, hobea edo okerragoa bizitzan izandako portaera zein izan zen gorabehera.

Aitzitik, espasmo artean eta segundo batzuk igarota, Erio Herminiori tiraka iluntasunerantz eramaten saiatzen zen bitartean, haren presentzia lurruntzen hasi zen, min eta arrangura garrasi handiak botatzen zituen bitartean. Gizakia alde egitera zihoan. Txertoak izan beharreko eragina eduki zuen. Izaki haren sinestezintasunaren aurrean, Herminioen gorputzak osatzeko prozesu luzea hasi zuen, heriotzaren ataritik bizitzara bueltatzeraino. ○



[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



**portu zaharra bar**  
Portu Zaharra kalea 35  
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)  
Tf. 94 460 20 33  
portuzaharra@portuzaharra.com  
www.portuzaharra.com



**SOLAETXE**  
Eguneko menua      **Jatetxea**      Karta  
Asteburuko menua           Oilasko erretegia  
Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



**PINTXOAK**  
**OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:**  
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK  
**AFARIAK ETA URTEBETETZEAK ENKARGUZ**  
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA



**berezi**  
Hanburgesak      Ogitartekoak  
Sanwichak      Plater konbinatuak  
SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO  
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



**BODEGUILLA BUTRON**  
Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)  
94 430 01 74  
www.bodeguillabutron.com



**txakoli mota gane txakolina**  
Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio  
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



**UNAI TABERNA**  
JATETXEA  
C/ Alangobarrri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



**JAN-TOKI ORMAZABAL**  
Eguneko menua  
Menu bereziak  
Karta  
Erreserbak:  
94 476 2389  
607 21 89 61  
LUTXANA-ERANDIO



**GOSARIAK PINTXOAK**  
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA  
**SOPELA**  
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



**GURE ETXEA taberna**  
HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

[pintxotan]

# Tomatearen gozoa

barazkiak eta gazta ondo-ondoan



Pintxoa Abian elkarteko tabernako barran aurki dezakezu

**Oraingoan** ere, Abian Elkarteko tabernara joan gara bertako pintxoakaz gozatzeko. Gaurkoan bertako sukaldariak pintxo erraz bezain gozoa prestatu dute, hainbat zaporek ahoan eztanda egin diezaguten. Hala, pintxoa egiten hasteko, tomate bat beharko dugu, moztu eta xerra bat irinaztatu eta arrautzaztatuko dugu, ondoren frijitzeko. Tomatea behin frijitu, kalabazina hartuko dugu eta kalabazin-xerra mehe moztuko dugu, eta horrekin ere aurrekoarekin bezala egingo dugu, irinaztatu eta arrautzaztatu. Horrenbestez, tomatea eta kalabazina prest izango ditugu pintxoan jartzeko. Ostean, jaki horiei kontraste egingo die pintxo honen jaki izarra jarriko dugu: ahuntz-gazta, hain zuzen. Beraz, ahuntz-gazta

xerra bat moztuko dugu, tomatea eta kalabazina artean jarriko dugu. Barazki eta gazta zaporeek sekulako kontrastea eragingo digute ahoan; freskotasuna, eta aldi berean, gozotasun handia sortuz. Jaki horiek guztiak, noski, ogi-xerra baten gainean jarri beharko ditugu, eta bukatzeko eta pintxoa apaintzeko modena ozipin-krema apur bat botako diogu gainean. Beraz, jada prest izango dugu pintxo gozoa eta erraz egitekoa; 15 minutu inguruan prest izango duzu-eta. Honakoa datozen Eguberriko afari eta bazkari jendetsuetan aise egiteko sarrerako zizkamizken errezeta ederra da; beraz, animatu eta egin! o

**Osagaiak: kalabazina, tomatea, ahuntz-gazta, arrautza, irina, olio, modena-ozpina**




**JUAN-MARI**  
Harategia eta txarkuteria  
**ARTESANA**  
LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25  
**AREETA**



**KONTXI ZUAZUBISKAR**  
**URDAITEGIXA**  
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!  
Alangobarrri 10, ALGORTA  
Tf. 94 491 02 93



**TXIBERRI edantokia frontoi partikularra**  
Aita Gotzon 4, URDULIZ  
Tf. 94 676 07 15



**Croissanterie Brioche**  
MONIF IATA 1  
48999 Getxo (Bizkaia)  
CROISSANTERIE-GETXO.BLOGSPOT.COM  
91 460 86 48



**BASARTENA**  
**URDULIZ**  
Teléfono: 946 761 128



**Taberna Berri**  
Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf. 94 430 64 93

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:  
**94 491 13 37**  
**publiuk@aldizkaria.biz**

**ITXASGANE**  
prentsa • aldizkariak  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

Torre 2  
48990 ALGORTA  
94 491 12 71  
iratialgorta@gmail.com  
**irati**  
OPARIAK MODA GAZTEA

Kopiak  
**SALGAI**  
UK aldizkariaren  
bulegoan



Uribe Kostako  
aldizkariaren  
ekoizpena



[horoskopoa]

**URA**



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Urte zaharra joan, barria etorri.  
Zorion egunak zuretzako bikoitzak  
izango dira, urtebetetzea ospatuko  
duzu-eta. Pena bakarra: ez duzula  
jasoko opari bikoitzik...

**OTSOA**



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Santo Tomaseko ajea igaro barik  
ospatuko duzu Olenzeroren eta Mari  
Domingiren etorrera, eta  
biharamunean etorriko dira negarrak.  
Daborduko ez zara horren gazte...

**ADARRA**



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Olenzerori gutuna idaztea ahaztu  
zitezazu eta oparirik ez du utziko  
zure etxean; hurrengorako gogoratu  
beharko. Eskerrak urte barriak  
osasuna ekarriko dizun!

**AITZURRA**



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Ez dituzu gustuko umek, baina  
halere, umentzako gabonetako  
ferian lan egiteko hautatu zaituzte.  
Hori da zorrea hori! Baina zorre  
ona... ala txarra?

**HOSTOA**



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Urak dakarrena urak daroa: negarra  
eragin duena eroango du negarrak.  
Beraz, alaitu aldarre hori, atsekabea  
pasako da eta, esaten den legez, bihar  
ere argituko du egunak.

**EGUZKIA**



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Urtero legez, paper batean idatzi  
dituzu urte barrirako egitasmoak. Ez  
duzu behar izan denbora gehiegirik,  
iazko berberak dira-eta. Inoiz horietako  
baten bat burutuko ahal duzu!

**GARIA**



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Kristoren bizikleta ederra ekarriko  
dizute Mari Domingik eta Olenzerok.  
Ikaragarri poztu beharko zenuke, baina  
ez da horrela izango, txanogorritxoren  
mozorroa eskatu diezu-eta!

**LASTOA**



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Familia osoa hartuko duzu etxean  
Gabonak ospatzeko eta,  
biharamunean, a zer anabasa!  
Hurrengorako badakizu: alde egin  
baino lehen etxea jaso diezazutela.

**IRATZEA**



(Abuztuak 18 irailak 16)  
Telebistako turroien iragarkian gertatu  
legez, urrun zenukan senide bat itzuli  
zaizu etxera Gabonetarako. Ospatu eta  
gozatu alkarregaz lasai asko, oraingoan  
betiko lotuko da-eta zuekatz!

**META**



(Irailak 17 urriak 16)  
Eskiatzeko irrikan zaude eta gogotsu  
ekin diozu kirolari, horren gogotsu  
lurrera jauzi eta hanka apurtuko duzun.  
Denboraldiaren gainontzekoa  
lesionatuta emongo duzu.

**HAZIA**



(Urriak 17 azaroak 15)  
Azerketak berehala dauzkazu eta  
Gabonetan ikasi eta ikasi arituko zara,  
ospakizunetarako denbora barik. Baina  
ahaleginak mereziko du, emaitza itzelak  
lortuko dituzu-eta!

**NEGUA**



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Kanpoan hotz, baina zu bihotz bero.  
Zuretzako urte osoan da udabarria eta  
beti zaude prest ligatzeko. Halere, bila  
egizu aterpe epela, kalean biluzteko hotz  
handiegia dago-eta.

**EGUTEGIAK '14**  
Zure argazkiekin pertsonalizaturik



10'74 €  
-TIK  
AURRERA



4'10 €  
-TIK  
AURRERA



1'63 €  
-TIK  
AURRERA



29'04 €  
-TIK  
AURRERA



6'45 €  
-TIK  
AURRERA



1'57 €  
-TIK  
AURRERA


Villa de Plencia, 6 (Getxo) · areeta@cianoplan.es · www.cianoplan.es



Laurita Siles, 2013

denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik


Ezker-eskuma

1. Odola isurtzea dute atsegin, ankerrak. 2. Etxeko zerbitzari, morroi nahiz neskame. Hiribildu nahiz gotorleku bat mendean hartzeko xedean egiten diren operazio-multzo. 3. Merkatua. Pluralean, ingelesek bostak aldera hartzen duten egoskin mota. 4. Itsasbaterreko haize bortitzak, enbatak. Bokal biribila. 5. Ikasturteak hasieran du. Kondaira. 6. Bizkaieraz, bezala. Labore hautsa. 7. Dulantziko kontzejua. Indioaren ikur kimikoa. 8. Artzibarreko herrixka, Zangozako merindadean. Meatzea. 9. Lehenengo bokala. Miau egiten du, miauka dabil. 10. Azienden azpiak egiteko erabiltzen diren gaiak.

Goitik behera

1. Sendagile, mediku. Atx! Otx! 2. Ahal du-gu. Nitrogenoaren ikur kimikoa. 3. Zurezko pieza luze eta lau. Eliza bateko kideen arteko banaketa. 4. Toka, luke. Bizkaiko udalerria, Txorierrin. 5. Azkeneko kontsonantea. Mungialdeko udalerri bateko. 6. Arsenikoaren ikur kimikoa. Zeintzuk. 7. Liturgia-otoitza. Litioaren ikur kimikoa. 8. Onura, errenta, irabazi. Irlandako itsasoko uhartea. 9. Gipuzkoako udalerria, Urola Kostan. Koaderno. 10. Fruitu tropikala. Nauk, Goierrri aldean.

Soluzioa



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Urte barri barri,  
dekodanak ez  
dekonari, nik ez  
dekot eta niri;  
ezbapere...??

> Aurrekoaren erantzuna: Tennis-pistak (Barrika)  
> Irabazlea: **Nagore Etxebarri LLaguno**

\*deitu telefonoz: 944 911 337

Noiz hasten da  
Neguko solstizioa  
Ipar hemisferioan?

- **Abenduaren 24an**
- **Abenduaren 31n**
- **Abenduaren 21ean**

> Aurrekoaren erantzuna: Euskarak 365 egun!  
> Irabazlea: **Andoni Sarasketa**

\*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **Oinutsik**  
kontsulta podologikoa

Zubigane 4, SOPELANA. Tel: 94 404 74 20  
oinutsik@euskalnet.net

SARIA **berria**

**Astakiloen abenturak**

Atxagaren 'Astakiloen abenturak' ipuin bilduma



PLAR ATXUTEGIK UTZITAKO ARGAZKIA

**ALGORTA BATELA ASTURIASERA JOAN ZENEKOA, 1970-71**

**Estropadakaz** lotuta dago gaurko argazkia, baina arraunlaririk ez da ageri. 1970-71 denboraldian Luancora (Asturias) gonbidatu zuten Algorta batela, eta hura animatzera hurbildu ziren algortar batzuk. Autobusa hartu eta asteburupasa joan ziren, fanfarre, txistulari eta guzti. Egun bi igaro zuten herrian eta bertakoek luzaroan gogoratu ei zuten algortarren bisita, herria asteburu osoan girotu eta luancarrak primeran pasarazi zituzten-eta. ○

**Zutunik:** Txistu, German Zubizarreta (Napoleon), ? , Blas Casado, Mari Mertxe Alcocer, Lugaresaresti eta Aritza  
**Makurtuta:** Imanol Egurrola, Edu Arrieta, Juan eta Txomin Guinea

**PEIO RUIZ CABESTANY** > txirrindulari ohia

# “Aralar magikoa dela iruditzen zait, nire txokorik kuttunena da”

Testua: **Ixone Vega**



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.**

Beste batzuen ondoan egotea atsegin duen bakartia naizela esango nuke.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

Egia esan ikusten ditudan pelikula guztietan sentitzen naiz protagonista, nahiz eta gero bizitza errealean inoiz ez izan.

**Zer barik ezin zaitezke bizi?**

Ez daukat ezerrekiko menpekotasun handirik. Bizitzeko nahitaez behar dudak gauza bakarria airea da.

**Eguna ala gaua? Zergatik?**

Eguna, dudarik gabe. Argitasuna aprobetxatzea gustuko dudalako.

**Gorrito duzun topikoa?**

Topiko tipikoa.

**Miresten duzun historiako pertsonaiaren bat.**

Munduarentzako gauza on asko egia bihurtu dituen, ospetsua izan gabe, eta umiltasunez.

**Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?**

Indotxinara egin nuen bidaiak askotan gogoratzen dut, barriz egiteko gogoz nago.

**Zein hutsegite ez duzu sekula barkatzen?**

Beti barkatzen dut, baina interesatzen ez zaidana nire ondotik aldendu egiten dut. Munduan dagoen jende miresgarriarekin, zerbait txarra egin dizun norbaitekin egoteko arrazoirik ez dago.

**Zerk beldurtzen zaitu?**

Gizakiaren basakeriari beldur diot. Pertsona batzuen erreakzio zakarrei, zein muturreraino hel gaitezkeen konturatzean...

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?**

Aralar, magikoa den lekua iruditzen zaidalako. ○

**LABURREAN**— Peio Ruiz Cabestany (Donostia, 1962) txirrindulari profesional izan zen 1984-1994 bitartean. Ibilbide profesionalen 23 garaipen lortu zituen, eta lorpen esanguratsuen artean daude Espainiako Vuelta eta Frantziako Tour-a irabazi zituenekoak. Gaztetan eskian ere jardun zuen, baina 18 urteagaz txirrindularitzan hasteko utzi zuen; gerora iraupen-eskiko txakelketa batzuetan parte hartu badu ere. 1997an *Historias de un ciclista* liburua idatzi zuen, bizitako kirol-ibilaldia batzen duena. Kirol zale amorratua izan da beti, txirrindularitza eta eskiaz gainera, igerilari eta korrikalari ere bada, eta horietako hainbat lehiaketatan ere parte hartu du. Horrez gain, telebistako hainbat kirol programatan komentaria jardun du, eta abenturazko *reality show* zenbaitetan ere ikusi ahal izan dugu txirrindularitza profesionala utzi zuenetik.

Irudien eta hizkien hizkuntzetan oinarrituta, Argi Hizkiak lehiaketa antolatu dugu Uribe Kostan. Argi Hizkiak testu laburren euskarazko literatura-lehiaketa da.

'Fotografia' edo 'argazki' berbek "argiarekin marraztea edo idaztea" dute jatorrizko esangura. Horrenbestez, zuen begiradek argien eta hizkien hizkuntzekin jolastea proposatzen dizuegu.

# ARGI HIZKIAK

Argazkietan oinarritutako TESTU LABURREN II. LEHIAKETA

## Erakusketa Getxon

Abenduaren 2tik urtarrilaren 4ra Villamonte kultur etxean

egizu!

uk  
URIBE KOSTAKO  
ALDIZKARIA

GETXO FORO EUSKARA BIZI aitxu! BERBALAMIRE berba lagun E! Berango 21 Leioa URIBEKOSTAKO MANGOMUNIDAD DE SERVIDORES ESPANOLAS DE MANEJO DE SERVIDORES



URTE  
OSORAKO  
OPARIA

20€

Lanabete Salas 2013

UK etxean hamabostero.  
Urtean 20€



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

neuk ere gura dot

www.ukaldizkaria.biz